



HEZITZAILE GIDA

LEHEN HEZKUNTZA | 4. MAILA

EZAGUTU HONDARRIBIA, Lehen Hezkuntza, 4. maila HANDITZEN, HANDITZEN Hezitzaile Gida Ezagutu Hondarribia Lehen Hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma honen izenburuan dago jasota; alegia, Hondarribiko ondare kulturalaren transmisioan ekarpen txoa egitea, belaunaldien arteko etenik egon ez dadin...

Askok pentsa dezakete funtzio hau familian eta ingurune hurbilean betetzekoa dela, baina ez dugu ahaztu behar jendartea biziberritzen doala, eta horrekin batera aldatzen. Azken 75 urtean, Hondarribiko populazioa hazten joan da etengabe: 6.362 biztanle zituen 1940. urtean, eta 17.181 aldiz 2015ean. Gaur egun Hondarribian bizi diren haur eta nerabeen gurasoak jaio ziren urteetan gertatu zen hazkunderik handiena. Populazioaren bilakaerari egiten badiogu kasu, aitona-amonak izateko adinean dauden biztanle gehienak herritik kanpo jaio dira. Beraz, baliteke haur eta gazte horiek herriko ondare kulturalaren transmisioa etxean jaso ez izana.

Hori ikastetxearen lana dela pentsa dezakete beste batzuek, baina ikastetxea gizarteratzeko bigarren erakundea da. Lehena familia da, eta bertan lantzen ez bada herriko ondare kulturala, haur eta gazte horiek galdu egingo dute.

"Jakina, herriaren lana da eta!", esan dezake inork. Baina... nor da herria? Ez al gara guztiok? Eta ez al da askotan gertatzen **guztiona** den hori **inorena ez** izatea errealitatean?

Gero eta globalizatuagoa dagoen gure mundu honetan, maiz, urrun dugunaren

gaineko informazio ugari jasotzen dugu, eta gertukoa, aldiz, etxekoa, ez dugu ezagutu ere egiten. Ezagutzen ez duguna, jasotzen ez dugun bitartean, existituko ez balitz bezalakoa da, eta kultura-identitatean hutsune handia eragin dezake. Nola baloratu ezagutzen ez duguna? Nola maitatu? Nola inplikatu? Nola biziberritu? Nola ezagutzera eman? Nola atxikimendua izan? Nola norberarena sentitu?

Gero eta ozenago entzuten dugu **herri hezitzailearen** ideia. Ez da berria, baina bai gaurkotasun handikoa. Eta gaurkotasun horretan, oso lagungarria izan da Francesco Tonucci psikologia-ikerlari italiarra. Ezaguna da, besteak beste, Fano herrian (Italia) Udalarekin batera **Haurren Hiria** egitasmoa martxan jarri zuelako¹. Hark esana da: *Historia ikasgaia umearen familiaren historia da, eta Geografia, umearen auzoaren geografia.*

Testuinguru honetan, hurbileko ezagutzak erabiliz norberaren herriarekiko interesa eta motibazioa piztea interesgarria izateaz gainera, beharrezkoa dela irizten diogu, uste baitugu horrela indartzen dela herritarren komunitate-/talde-sentimendua.

Ustezko hutsune horretan ekarpen txoa egiteko asmotan sortu genuen egitasmo hau, bai ikastetxean, bai etxean, bai kalean landu ahal izateko. Herria hobeto ezagutzeko, herrira gerturatzeko, herria gozatzeko, herria maitatzeko. Herria sentituz eta maitatuz, herri-kohesioa eta herritartasuna garatzea da egitasmoaren azken helburua, xedea; izan zirelako baikara, eta garelako izango baitira.

¹ Tonucci, F. (2013): Haurren Hiria. Txatxilipurdi.

Bildumak 6 unitate didaktiko biltzen ditu, bat Lehen Hezkuntzako ikasmaila bakoitzeko, eta irakasle/hezitzailearentzako gidaliburu bana. Honako hau dugu laugarrena. Kronologiaren ardatzari jarraituko diogu; hau da, munduren sorreratik gaur egunera arte, eta bertan bildu nahi genuke herri mailako ondarea.

Irakaslearen gidaliburuan, unitate didaktikoan agertzen diren eduki/jarduerez gainera, beste hainbat biltzen ditugu, bai osatzeko, egoki irudituz gero, edo ordezkatzeko... Asmoada materiala malgutasunez erabili ahal izatea, ikastetxeak/irakasleak/hezitzaileak egokien deritzonaren arabera. Estekak eta bibliografia ere eskaintzen ditugu.

SARRERA

Hondarribiak hiru esparru dituela esan ohi da: lurra, itsasoa eta hiria. Esparru bakoitzak bere biztanleak ditu: **baserritarrak**, **portuarrak** eta **kaletarrak**; baita bere nortasun eta hizkera propioa ere, nahiz eta azken hamarkadetan hiriak izandako aldaketekin desberdintasun hauek apurka lausotzen ari diren.

Aurreko unitate bakoitzean, hiru esparruetako bat nabarmendu dugu, eta hala egingo dugu hurrengo hiruretan ere. Oraingo honetan, gure hiriaren nagusitasun historiko horren gainbeheraren lekuko izango gara, eta ikusiko dugu haren harresiak galtzearekin batera plaza militarra izateari utzi ziola. Baina harresien suntsiketak atea irekiko dizkigu gure begirada zabaldu eta herriko beste esparruetara hurbiltzeko. Hortaz, unitate honetan lurrera itzuliko gara, eremu honetan sakontzeko asmoz.

Hondarribiar oro jaiotzetik sinbolikoki lurrean errotua dago, edo hala esan dezakegu Zuhaitzaren Eguna ospatzen denetik behintzat. 1996tik aurrera, jaiotzen den hondarribiar bakoitzeko zuhaitz bat landatzen da Jaizkibel mendian, naturaren babesa eta zaintzaren garrantzia gure erraietan ondo sustraitua gera dadin. Hori guztia gogoan, inguratzen gaituen naturan murgilduko gara, Jaizkibel, gure erreka, Jaizubiako padura eta hain aberatsa eta berezia den gure bioaniztasuna nabarmenduz. Gure hiriko ur-hornidura nondik datorren eta nora doan ere izango dugu aztergai eta zaborraren kudeaketaren inguruan ere ariko gara.

Gure hiriko garraio publikoaren hastapenak ere ezagutuko ditugu, eta horrekin loturiko pasadizo harrigarriak berreskuratuko ditugu.

Baina unitate honetako atal nagusia naturarekin oso loturik egon den bizimoduaren ingurukoa da; baserria alegia. Ohiko historia-liburuetan agertzen ez den bizimoldea itzalpetik atera eta gure gizartean izan duen eragina eta garrantzia aitortzen saiatuko gara edo besterik ez bada ere, hurbiltzen, hobeto ezagutu eta gure egin asmoz. Baserriarekin lotura zuzena duen *baserritarren azoka* aipatuko dugu, ortua lantzeko proiektuak ezagutuko ditugu, sendabelarrei ere erreparatuko diegu, garai bateko errota eta errotarrien garrantziaz ariko gara, eta gure herrian sagardoak izan zuen protagonismoa erakutsiko dugu.

XVIII. MENDEAREN ARGILUNAK

XVIII. mendeari *Argien mendea* esaten zaio. Frantziatik zetorren *Ilustrazioa* zegoen Argien gizaldiaren oinarrian; izan ere, mugimendu intelektual eta kultural horrek, arrazoiaren argia erabili nahi zuen gizakiaren inguruko sineskeria, iluntasun eta ezjakintasunak uxatzeko. Zientziak bultzada handia izan zuen garai honetan eta baita hezkuntzak ere.

Euskal Herrian ere ekimen ugari gauzatu ziren, eta haietan aipagarriena *Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte* ren sorrera izan zen. Elkarte horrek zientzia, hezkuntza, nekazaritza, arteak eta merkataritza landu zituen bereziki. Euskal burdindegietara hobekuntza teknologikoak ekarri zituzten, lihoaren lanketan ere izan zuten eragina, abere klase berriak ezagutarazi zituzten, hiri-higienearen eta saneamenduaren inguruan ere aritu ziren eta lehen hezkuntzako eskola asko eraiki zituzten.

Ekonomian, sektore berriak abiatu ziren pixkanaka, eta horrek ekonomia bera eta merkataritza suspertu zituen. Bien bitartean, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra sortu zen 1728an; garaiko Euskal Herriko konpainiarik indartsuena, Venezuelako kakaoaren monopolioa baitzuen.

Dena ez zen, ordea, argitasuna izan. Argien mendeak izan zituen bere itzalak. Euskal gizartean hautsak harrotuak zebiltzan, eta hainbat matxinada egon ziren han eta hemen: herri-lurrak konfiskatzegatik, nobleziaren gehiegikerien kontra, soldadu joatearen kontra, zerga-igoeren kontra, aduana itsasora aldatzeagatik...

Emakumeen egoeran ere ez zen aldaketarik gauzatu. Haien bizitza Erdi Aroan txertatuta geratu zela esan daiteke. Aitaren agindupetik senarraren agindupera pasatzen ziren ezkontzen ziren unean, eta senarra ez zuten haiek

aukeratzen. Orokorrean emakumeari men egiten irakasten zitzaion. Horrez gain, sexuaren inguruko gurutzada moralista batek eraginda, emakumeak errudun eta gaizkiletzat jotzen zituzten, eta prostituzioa leporatzen zieten espetxealdi gogorra ezartzen zieten.

Herri xehea, ezjakintasunaren lozorroan murgilduta, hainbat sineskeriaren jabe zen. Jaio berriei, esaterako, ez zieten burua garbitzen urtebete egin arte, bataioko uraren indarra ezabatzearen beldurrez. Sentimendu erlijiosoa ere oso zabaldua zegoen oraindik. Higieneari dagokionean, arropa bera erabiltzen zuten egunez eta gauez, erabat hondatzen zen arte. Eskuekin jan ohi zuten, eta zopa katilutik edaten. Poliki-poliki koilarak erabiltzen hasi ziren, eta ondoren sardexkak.

HONDARRIBIA ARGIEI MENDEAN: NAGUSITASUN HISTORIKOAREN GAINBEHERA

Argien mendea deiturikoak aldaketa handiak ekarri zituen Europa osora, baita Euskal Herrian ere. Mende berri horrek, gure herriarentzat, ordura arte izandako nagusitasun historikoaren amaiera ekarri zuen. Argien mendean gotorleku boteretsuaren distira betirako itzali zen.

Garai horretan, gorriak eta bi ikusi zituzten Hondarribiko biztanleek. Aurreko unitatean setioen inguruan hitz egin genuen, eta mende honetan bi setio garrantzitsu izan zirela aipatu genuen: 1719koa eta 1794koa. Berriro ere, estatu boteretsuen arteko norgehiagokak gertakari odoltsuak ekarri zituen gure atarira. Oraingoan, ordea, hiriak amore eman behar izan zuen bi setioetan. Historian zehar pribilegio eta hobari ezberdinak izan zituen hiri harresituaren garrantzia eta haren ohorea ere ezbaian geratu ziren, eta mende bukaerarako, gure hiriak plaza militarra izateari utzi zion.

Mendea Espainiako Ondorengotz a Gerrarekin hasi zen (1701-1713). Espainian, lehenengoz, borboi bat zegoen tronuan, Filipe V.a, eta gatazka Frantziako borboien eta Austriako habsburgotarren eskubide dinastikoak defendatzen zituztenen artean izan zen.

Ondorengotza Gerra Utrechteko Itunarekin amaitu zen 1713an. Espainiak, ordea, ez zituen errespetatu itunean sinaturiko baldintzak, eta horrek Lauko Aliantzaren Gerra piztu zuen; oraingoan, Frantzia, Ingalaterra, Herbehereak eta Austria Espainiaren kontra batu ziren. Hala iritsi ziren Hondarribira, 1719ko maiatzean, frantziar gudarosteko milaka soldadu Berwick Dukearen agindupean. Ekainaren erdialdean, harresietan irekitako zuloaren ondorioz, hiriak amore eman behar izan zuen Filipe V.a erregearen baimenarekin, hark ez baitzuen laguntzarik bidaliko, 1638ko setioan gertatu zen bezala. Hiriak kapitulazio-baldintza onak lortu zituen arren, bertako etxe gehienak suntsitu zituzten eta 1721. urtera arte iraun zuen frantziarren eskuetan.

Hamarkada batzuk besterik ez ziren pasa eta, 1794ko uztailean, Konbentzioko armadak gure hiria bonbardatu zuen setio berri bati hasiera emanez, eta hiriak amore eman zuen abuztuaren 1ean. Frantziako Iraultzaren ondoren sortutako Konbentzioko Gerra izan zen oraingoan gatazka armatu berri bat gurera ekarri zuena. Frantziako Iraultzak bertako monarkiarekin bukatu izanak kezka handia sortu zien Europako gainerako monarkiei eta, bloke bat osatuz, gerra deklaratu zioten Frantziako Konbentzio Nazionalari. Gatazkaren hasieran, hainbat eraso pairatu zituen frantziar Konbentzioak bere mugetan. Haietako bat Hondarribitik iritsi zen 1793ko apirilaren 23an, gure harresietatik Hendaia bonbardatu eta bertako gotorlekua suntsitu baitzuten. Urtebete beranduago, ordea, Hondarribia izan zen errenditu behar izan zuena, orduko frantziar agintari militarrek mehatxatu baitzuen errenditu ezean

biztanle guztiak akabatuko zituztela banan-banan labanarekin.

Kapitulazioaren ondoren, hiria frantziarren menpe geratu zen, eta 3. unitatean ikusi genuen bezala, historian zehar hainbeste buruhauste eman zizkien gotorlekua suntsitzea izan zen haien xedea. Orduantxe desagertu ziren gaur egun gure harresiari falta zaizkion hainbat zati, bereziki Hendaia begira zegoena. Egun, Erreginaren Baluarte eta San Nikolas Baluartearen artean dagoen harresian nabarmen diraute oraindik orduan harresiaren behealdean egindako zuloak; izan ere, zati hau lehertzea zen haien asmoa, eta zulo horiek bertan minak jartzeko prestatu zituzten. Zorionez, hori egin baino lehen sinatu zen Basileako Bakea deiturikoa 1795ean eta horrek, leherketak geldiarazi zituen.

Halere, setio horren ondorioak oso gogorak izan ziren. Setioan zehar eta ondoren izandako bonbardaketek 169 etxe inguru suntsitu zituzten. Soldaduek mota guztietako arpilatzeak egin zituzten. Gerra-harrapakin gisa 2.000 preso, 200 kanoi, 12.000 fusil, 1.500 kanpin-denda, 4.000 lehergailu eta bala, 30 edo 40 arrantzale-txalupa... eraman zituzten. Hainbat sute ere eragin zituzten, zur guztia erre baitzuten mendira bila ez joateagatik. 1796ko setioareen ondorengo txostenak adierazten zuen Hondarribia plaza militar gisa desagertu zela eta gotorleku hartan hondakinak besterik ez zirela geratzen.

ESKUALDE-BURU IZATEARI UTZI ZIONEKOA

Aldi berean, XVIII. mendean, Irunek (1766) eta Pasai Donibanek (1767) burujabetasuna lortzearekin batera, Lezoraino mugatuta gelditu zen Hondarribia. Hamarkada gutxi batzuk beranduago, hark ere eskuratu zuen, eta ordutik du gure hiriak egun ezagutzen dugun eremua.

HIRI HARRESITUTIK PORTU AUZORA

Gaur egun gauzak asko aldatu badira ere, garai batean, orain Alde Zaharra bezala ezagutzen dugun auzoa izan zen hiriaren bihotza. Hiri harresitua garrantzizko plaza militar bat izan zen bitartean, merkataritza ere bertan zegoen. Haren gainbeherarekin, ordea, hori aldatu egin zen.

Hiri harresituaren garaian, merkataritza guztia, dendak eta elikagai-biltegiak hiri harresituan zeuden; debekatua zegoen handik kanpo. Horrek hainbat arazo sortzen zien egun Portu Auzoa bezala ezagutzen dugun orduko Magdalenako Aldiria eremuko biztanleei. Arrantzaleek ezin zuten itsasora ateratzeko behar zituzten elikagaiak erosi, hiri harresituak goizean bere ateak irekitzen zituen arte. Arraina pisatzeko, Puntalean zegoen Lonja etxera joan behar zuten. Debekatua zuten arraina kontserbatzeko gatza biltegitratzea ere.

Hainbat gatazka sortu ziren debeku horien ondorioz, baina latzena 1799ko ekainaren 30ean jazo zen Udalaren eta Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiaren artean. Istilu horiek zirela medio, 47 kofradia-kide auzipetu zituzten eta asko espetxeratu zituzten. Beste askok ihesi egin zuten.

Gatazkak hainbat urtez iraun zuen harik eta 1817an Udalak eta Kofradiak itun bat sinatu zuten arte. Bertan, egunerokotasunari loturiko zenbait produktu aldirian saltzeko baimena ematen zen, baita gatza biltegitratzekoa ere. Baina hiriak produktu gehienak saltzeko monopolioa izaten jarraituko zuen. Helburua hiriko merkataritza babestea zen baina, era berean, aldiriko biztanleen bizitza erraztea. Egoera horrek, ordea, ez zuen luze iraun; jada hasia zen merkataritza bertan, eta denborarekin, aldiria Portu Auzo bilakatu zen.

HONDARRIBIA, NEKAZARITZA-HIRIA?

Hondarribiari buruz zer dakien edonori galdetuz gero, nekez lotuko du gure hiria nekazaritzarekin. Ez da burura etorriko zaion lehen irudia. Hondarribiari buruz edonori galdetuz gero, hondartza etorriko zaie askori burura, edota Portu auzoko jatetxe eta tabernak... Zenbaiti hiri harresitua eta bere gaztelua ere etorriko zaizkie akaso. Ez da harritzekoa, hirugarren sektorea baita egun gailendu dena, nabarmen gailendu ere. Aurrera jarraitu aurretik, ordea, ikus dezagun zer dakigun.

1. jarduera. Saiatu gaitzen denon artean honako galdera hauei erantzuten:

- Zenbat baserri daude egun Hondarribian?
- Ezagutzen al duzu baserri horietakoren bat? Egon al zara inoiz haietako baten barruan?
- Ezagutzen al duzu baserrian bizi den norbait? Eta baserrian lan egiten duenik?
- Kontsumitzen al dugu etxean baserriarren azokan erositako produkturik? Ba al dakigu zein baserriatik datozen?
- Ba al dago alderik bertako azokan erositako barazkien eta supermerkatuan erositakoen artean?

Ikusi dugu denon artean zer dakigun baserrien inguruan. Orain, gaian murgiltzeko, entzun dezagun baserriar baten hitzetan nolakoa zen haien bizimodua:

BASERRIAK INGURUA IZENDATZEN DU/INGURUAK EMATEN DIO IZENA BASERRIARI

Ondorengo esteka honetan, ETBko Ur Handitan saioan Pedro Sagarzazu hondarribiarrari egin zioten elkarrizketa dago ikusgai. Labur azaltzen digu garai bateko baserriko bizimodua nolakoa zen: noiz jaiki eta oheratzen ziren, baserri askotan kandela erabiltzen zutela argiztatzeko, nola garbitzen ziren, erdaraz ez zekitela, eskolari eta elizari beldurra ziotela, maizterra izateak zer esan nahi zuen, errenta nola ordaintzen zioten jabeari, baserriko lan neketsua... Baita egun Tximistenea baserriak bere inguruko etxe berriei eta kaleari izena eman diela ere.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/urhanditan/bideoak/osoia/5643463/bideoa-hondarribiako-pedro-sagarzazutximista-baserriaren-etorkizunari-buruz/>

HONDARRIBIKO BASERRIEN BILA

Honako esteka honetan Hondarribiko mapa toponimikoa duzu. Bertan, beste gauza askoren artean, herriko baserrien zerrenda dago eta bakoitzaren kokapena zehazten da, zutik dirautenak (beltzez nabarmenduak) zein desagertutakoak (gris kolore apalean):

<http://www.hondarribia.eus/documents/124308/5886591/Toponomia+y+Caseros/fc69c6dd-a0c3-3d99-9e17-de634e18c8f3>

2. jarduera. Mapari begira, topatu inguruko elementuei izena eman dieten baserriak. Adibidez, **Muliate** baserria, desagertu zen arren, egun auzune batek, plaza batek, auzuneko igerilekuak eta kafetegi batek ere bere izena daramate.

Gure baserriak banan-banan kokatzeko beste tresna erabilgarri bat Gipuzkoako Aldundiaren bilatzaile geografikoa da. Aski dugu baserriaren izena bilatzailean jartzea:

<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/kaletegia/hondarribia>

Adibidez, hemen **Tximistenea** baserria bilatu dugu:

https://b5m.gipuzkoa.eus/b5map/r1/eu/mapa/lekutu/D_A22879/geruza/mapa

Gure herrian nekazaritza pobrea izan da, uzta ez da inoiz ugaria izan. Nekazarien edo abeltzainen bizitzak ez du setioek edo bestelako gertakari epikoek bezainbesteko ikusgarritasunik eta ez zaigu apenas eremu horretako kondairarik iritsi. Halere, ezin dezakegu gizartea eta historia ulertu gure baserriena aztertu gabe. Horretaz ederki jabetu ziren F. Olaskoaga, L. M. Elozegi, J. R. Gebara eta K. Ortega eta *Hondarribiko baserriak* lana argitaratu zuten. Ekarpen paregabea. Hemen azalduko ditugun datu asko bertatik hartu ditugu eta biziki gomendatu nahi diogu gaian sakondu nahiko lukeen edonori.

Gure baserriek izan duten garrantzia ulertzeko, aski dugu aztertzea Hondarribiko biztanleria eremuka nola zegoen banatua:

1787. urtea: 2351 biztanle; 352 portuan, 867 harresi barruan, **1.132 baserrietan (% 48).**

1841. urtea: 2291 biztanle; 399 portuan, 603 harresi barruan, **1.289 baserrietan (% 56).**

1900. urtea: 4345 biztanle; 1.117 portuan, 1.086 harresi barruan, **2.142 baserrietan (% 49).**

XIX. mendearen erdia aldera, populazioaren % 56 bizi zen baserrietan eta, XX. mendera arte, baserrietan kalean baino jende gehiago bizi zen. Artxiboei

esker dakigu 1598. urtean dagoeneko bazeudela 74 baserri eta 1600ean, 92. 1638ko setioaren ondorioz jasandako kalteen zerrenda agertzen zaigu garaiko idatzietan eta bertan, 104 baserri, 20 oinetxe eta 9 errota zenbatzen dira kaltea jasandakoen artean. Honi esker dakigu urte hartan 104 baserri baino gehiago zeudela. Beranduxeago, 1787an 217 baserri zeuden eta 1857an 239.

Baserritar kopurua kaletarrena baino handiagoa izanda ere, ez zuten ordea proportzionalki agerpen bera botere guneetan.

Ezagutzen ditugun Udal Ordenantza zaharrenen arabera (1531), harresitik kanpo bizi ziren biztanleek ezin zuten udalean kargurik izan. 1597ko Ordenantzek espresuki galarazi zuten baserritarrek hauteskundeetan parte hartzeko aukera izan zezaten. Ordenantzok antzera jarraitu zuten XIX. Mendera arte.

BASERRIAK, IZENA ETA IZANA

Hondarribiko baserriek bi izen mota dituzte: onomastikoak, hau da, egile, jabe edo maizterraren izena daramatenak eta toponimikoak, edo kokapenaren arabera izendatutakoak. Onomastikoen artean ditugu *Brunonea*, *Domingotxonea*, *Estebanenea*, *Igiñitzenea*, *Jamotenea*, *Marisantzenea*, *Patximoxkanea*,... Toponimikoen artean aipatzekoak dira *Ameztipunta*, *Arroka*, *Bekoborda*, *Erreka*, *Galtzadaburu*, *Kamio*, *Luberri*, *Masti*, *Muñoa*, *Urbizi* ...

“Gure” baserriei buruz ari gara, baina baserriak gureak izan baino, gu ginen baserriarenak. XVI. Mendera arte, norbaiti buruz hitz egiteko, zein baserritakoa zen aipatzen genuen. Gure arbaso asko eta asko baserrietatik datoz; baserriak eman zien izena eta izana. Hortaz, gure abizenetako asko eta asko baserrien izenak izan ziren jatorrian. Hondarribiko

zenbait adibide ekartzekotan, honezkero ezagutzen dugun *Matxin de Artzu* edo *Artzuko Matxin* aipatzen dugunean, **Artzu** baserrikoa zela esaten ari gara, edo *Juana de Mugarrieta*, **Mugarrieta** baserrikoa, edo *Juan de Aginaga*, **Aginaga** baserrikoa...

Baserrien jatorria dela eta, Erdi Arokoak zurezko erakin txikiak ziren eta egun ez da garai hartakorik geratzen Gipuzkoa osoan. Harrizko lehen baserriek 500 urte inguru dituzte.

Gaur egun ezagutzen dugun baserri eredua XVI. mende hasiera ingurukoa da. Egun badaude Gipuzkoan zutik dirauten garai hartako baserriak. Hondarribiak Hiri-gutuna jaso aurretik ba zen baserririk. Dokumentuetan topatutako zaharrenak **Ipiztiku** eta **Batxillerenea** dira; azken hau 1423an jada eraikia zegoen eta Ipiztiku zaharragoa da oraindik. 1462an hemeretzi baserri zeuden Jaizubian, zortzi Gornutzen eta bat Akartegin.

XVI. mendearen amaierak krisi ekonomiko sakona ekarri zuen eta hainbatek nekazaritzan ikusi zuen irtenbidea. Hala, lantzeko lur berrien beharra sortu zen. Hondarribian itsasoko padurak lehortu zituzten lur gehiago lortzeko egitasmo horretan eta 1608an, Amuteko zubia ixtea proposatu zuen udalak bertako ihitokian garia, artatxikia, kalamua eta lekaleak landatu ahal izateko.

Garai hartan, *artoaren iraultza* gertatu zen. Ameriketarik iritsi eta zabaldu zen. Baserriak ugaritu egin ziren XVIII. mendearen erdira arte. Garai hartan baserri berri asko eraiki zen eta baso, otadi, sasitza... asko egokitu ziren ustiaketarako lur gisa. Artoaz gain, artatxikia, baba eta lekaleak ereiten ziren nagusiki. XIX. mende aldera, patata eta babarruna ere zabaldu ziren.

ILARGIARI SO...

Gure egungo bizimoduan sarri ahazten dugun arren, ilargiak egundoko eragina du hainbat gauzetan. Ederki aski jakin izan dute beti hori baserritarrek. Ondorengo bideoan azaltzen digu baserritar honek: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-065-009/>

Mahasti eta sagardiek ere garrantzia handia izan zuten. Ordukoak ditugu *Hondarribia zuri* eta *Hondarribia beltz* izenekin egun txakolina egiteko ezagunak diren mahats motak.

XVI. mendean bertan, mahasti gehienak sagasti bilakatu ziren eta ondorioz sagardoaren ekoizpenak gora egin zuen. 1920 inguruan, baserrietan 37 dolare zeuden eta hiri barruan sei.

Beste fruta arbolak ere aldatu ohi ziren.

Martixenea baserriko alokairu agirian esaterako, aranondoak, muxikondoak, intxaurrondoak...aipatzen dira.

Kalamuaren ekoizpena bera ere garrantzitsua izan da Hondarribian. Ontzigintzarako sokak egiteko biziki garrantzitsua zen kalamua. 1631an kalamudi bat zegoen Amuten, Aizioondo kapitainaren lurretan.

BA AL ZENEKIEN...?

Guadalupe Santutegiko aldarearen ezkerreko aldean ba da Hondarribiko baserritarrentzat garrantzitsua den irudi bat, San Isidro laboraria, baserritarren patroia alegia. Egun, oraindik ere bere omenez ospatzen da maiatzaren 15a. Tradizioaren arabera, egun horretan, baserritarrek ezin dute ez lanik egin ezta idirik uztartu ere, zorte txarra ekarriko bailuke. Egun horretan santua atera, prozesioa egin eta zelaiak bedeinkatzen dira.

Herrikirolak eta bertsolariak ere egon ohi dira. Hona Lizaso bertsolariak San Isidro egun batean botatako bertsoa:

*Oso gutxitan izaten dira
Holako egun ederrak,
pozak txoratzen azaldu dira
honuntza baserritarrek.
Gaur ez diete kezkarik eman
artuak eta belarrak.
Urte askuan segi holaxe,
Agur guadalupetarrak!*

Eta aurten ikasgela osoa egun horretan elkarrekin bertara joatera animatuko bagina? Jaia ezagutu eta baserritarrekin egoteko aukera paregabea izan daiteke. Belaunaldien arteko topaketa ere izango litzateke. Agian ikasgelan galdetegi bat presta genezake, baserritarrengandik zer jakitea gustatuko litzaieken jasoko zukeena eta egun hori balia dezakegu galderak egiteko.

Basogintza ere garrantzitsua izan zen diru iturri gisa. Baserritarrek, egurra, zura edo ikatza salduz ateratzen zuten etekinarekin, soldata osatzeko aukera izaten zuten.

Abeltzaintza izan da baserriko beste jarduera. XVI. mendeaz geroztik. Ardiak eta ahuntzak zeuden batez ere baina artaldeak 50 burukoak ziren gehienez. Baliteke baserriren batean behi batzuk eta idi pareren bat egotea. Garai hartan soilik baserri aberatsenetan zeuden idi pare soro edo zama lanetarako eta gainerakoei alokatzen zieten.

Txerri gutxi batzuk ere bazeuden. Hauek ez ziren baserrietan bakarrik hazten, kaleko etxeetan ere izaten zituzten, bat edo bi etxe bakoitzeko, jatekoa izan asmoz. Hamaika arazo sortzen zituzten zerriok eta udalak askotan agindu zuen kalean ez zitzaten aske utzi. Jaizkibelgo lurak alokatzen zituen

Udalak kanpoko ganaduak bertako larrea bazka zezaten.

Baserriak, ez zuen senide guztiak bertatik bizitzeko adina ematen. Hori dela eta hainbat semek, maiorazkoak ez zirenak, beste bizibide bat aukeratzen zuten: itsas merkataritza, arrantza, armada... Jabetzari dagokionean, XIX. Mendera arte baserrien jabetza oro har, familia gutxi batzuen esku zegoen Hondarribian zein Euskal Herrian ere. Jabe horietatik oso gutxi ziren baserrian bertan bizi zirenak, gehienek alokatu egiten zituzten eta bertan maizter bizi ziren. Maizterrek, errenta ordaindu behar izaten zuten eta horretarako uzta zati bat ematen zuten gehienetan. Hondarribiko baserrien jabe ziren honako familia hauek: Iriartetarrek 21 baserri zituzten; Zuloagatarrek 19, Casadevantetarrek 14, Lartzatarrek 14, Ramerytarrek 10,... Ez da harritzekoa beraz haiek herrian botere handia izatea. XIX. mendean bertan ordea, jabetza lortzeko modua aldatu zen. Hemendik aurrera, lurak ez ziren soilik ezkontza edo herentzien bitartez lortzen, salerosketaren bitartez lortzerik ere bazegoen. Estatuaren lurren desamortizazioak eta udalak eginiko herri lurren salmentak, klase sozial ezberdinetako jende diruduna erakarri zuen lurak eroatera. Laborda familiak esaterako 25 baserri erosi zituen Hondarribian eta Aquilino Riodriguezek, 15.

Baserrien egiturari erreparatzen badiogu beheko solairuan kokatzen ziren bizilekua, ukuilua (animalien berotasuna profitatzeko) eta belarra gordetzeko lastategia. Bigarren solairuan ordea, teilatupean, ganbara eta aletogia egon ohi ziren, bildutako produktuak gordetzeko. Zenbait baserrian dolarea ere bazegoen, sagarrak prentsatzeko eta sagardoa lortzeko.

Baserri zaharretan ez zegoen intimitaterik. Egotekotan, gortinekin banaturiko gela txikiak egon zitezkeen, baina oro har, familia osoak gela berdinean egiten zuten

lo. Belaunaldi ezberdinak elkarrekin bizi ohi ziren: aitona-amonak, gurasoak, semealabak, izeba edo osaba ezkongaberen bat...

Material osagarria

Ondorengo estekan Hondarribiko baserrien argazkiak ikus ditzakegu. 1965ean eta 1990ean egindakoak dira. Luis Mari Elosegui bilduma (6-20ra bitarteko orrietan): <https://www.guregipuzkoa.eus/?paged=7&s=&sfot=Elozegi+Aldasoro%2C+Luis+Mari>

NOLA BIZI ZIREN GURE ARBASO BASERRITARRAK?

Baserria gure arbasoen bizimodua izateaz gainera, bertako supazterrean gorde izan ditugu euskara, kondairak, sinesmenak, ohiturak, kantuak,... Egun, baserri asko etxebizitza moderno eta eroso gisara birmoldatu dituzte, askotan landa turismoari begira. Baina nola bizi ote ziren gure baserritar arbasoak?

GURE BASERRITARRAK BLAGAN

Artzu baserriko bizimodua kontatzen digu Kontxita Mendizabal Arzuagak: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-031-004/> Sukalde motak eta egurrari buruz ari zaigu Fermin Larrarte Zuzaiak: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-046-006/> Ze animalia mota zituzten aipatzen digu Guillermo Olasagasti Sagarzazuk, baita umetako bihurrikeriaren bat ere: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-005-004/> Joxepa Goikoetxea Genuak astorik ez zutela eta karga buruan nola eramaten zuten aipatzen digu: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-010-018/>

2. jarduera. Ondorengo bideoan, Bittor Galarza Ugartek baserrian zenbat bizi ziren kontatzen digu:
<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-008-007/>

Zenbat bizi ziren? Zenbat belaunaldi ezberdin zeuden etxean?
Konparatu dezagun orain gure bizimoduarekin: zenbat belaunaldi bizi gara gure etxean?
Gure aitona-amonak non bizi dira?

Bizimoduan eragin handia zuten sinesmenek eta erlijioak; hori dela eta, hainbat elementu erabili ohi zuten haien babeserako. Baserria egiten hasi orduko, adibidez, erramua jartzen zuten babes gisa. Elorri zuria tximistak uxatzeko oso eraginkorra zela pentsatzen zuten; izan ere garai hartan, beldurgarriak ziren tximistak, haien eragin zezakeen suteak baserri osoa erre zezakeelako.

BA AL ZENEKIEN...?

Gaur egun oraindik ikus dezakegu baserri askotako atarrietan, baita etxeetan ere kardu lorea. Baina ba al dakigu zergatik jartzen den?

- Eguzki-lorea edo kardu loreak eguzkiaren itxura dauka eta gure arbasoek espiritu gaiztoengandik babesteko jarri ohi zuten.
Eta gaur egun?
- Egun, baserri eta etxeetako atarrietan eguzki-lorea jartzen jarraitzen dutenek zentzu berdina ematen ote diote?
Ohitura zaharrak mantentzeko egiten ote dute?
- Ezagutzen al duzu herrian kardu lorerik daukan baserri edo etxerik?

Beste zenbait babes elementu erlijiotik zetozen. Jesusen sinboloa den *IHS* anagrama esaterako edo gurutze santuaren sinboloa hainbat baserrien atarrietan jartzearen ohitura, Jainkoaren babesa bermatzeko zen. Gure hiriko alde zaharrean oraindik topa ditzakegu horrelako sinboloak.

Material osagarria

Baserri batean, gortinekin banandutako logela baten argazkia:

<http://bertan.gipuzkoakultura.net/bertan4/argazkiak/g/80.jpg>

Baserriarekin lotutako lanbideetan sakondu nahi izanez gero:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/aintzinako-lanbideak/baserri-ingurukolanbideak>

BA AL ZENEKIEN...?

Lesakanea baserrian bizi izan zen, maizter, aurreko unitatean ezagutu genuen Inesa Gaxen, 1611n sorginkeria leporatu baino lehen.

EMAKUMEA ETA BASERRIA

Emakumearen lana funtsezkoa zen baserriaren ekonomian. Emakumea baserriaren habe eta zutabe zela esan dezakegu, bere gain baitzuen familiaren eta baserriko martxa guztiaren zama.

Baserrian gizonezkoek eta emakumezkoek parte hartzen zuten laborantza eta abeltzaintzaren lan neketsuetan, baina horiek amaitu eta etxeratzerakoan, gizonezkoek atsedena har zezaketen, emakumezkoek ordea etxeko lanak zituzten zain. Emakumeak soroetan egiten zuen lan gizonezkoen pare, laia erabiliz, aitzurrarekin, belarra mozten eta biltzen...

Ukuiluko zereginetan ere parte hartzen zuen, animaliei jaten ematen, azpiak kentzen, ganadua jezten eta behar zen guztia egiten. Etxeetan urik ez zegoen garai haietan ere, askotan emakumeen zeregina zen ur bila joatea.

Fruituak ere biltzen zituzten eta jasotakoa kontserba bihurtu eta salmentaz arduratu. Plazara ere emakumea joan ohi zen baserriko barazkiak, arrautzak, esnea, kontserbak eta gainerakoak saltzeko. Tratuan ere abilak izatea komeni zitzairen etxera diru pixka bat eraman ahal izateko.

Esan bezala, etxeko lan guztiak bere gain hartzen zituzten. Kontuan izan behar dugu gainera, duela gutxira arte arropa eskuz garbitzen zela, ez zegoela ontziak garbitzeko aparailurik edo sukaldeko tresna modernorik. Etxeko lan guztiak askoz ere nekezagoak ziren. Era berean, familia osoaren zaintza emakumeen ardura zen; haurrak, gurasoak, senarra eta etxean bizi ziren senitarteko guztiena.

Baserrian egiten zuen beste lan garrantzitsu bat lihoarena zen; hau da liho haziak erein, uzta bildu, landu, landaretik lihoa atera, prozesatu, hari bihurtu, arropa ekoitzi eta jantzi edo saldu..

4. jarduera. Aipatu ditugun betebeharrak horiei guztiei erreparatuz gero, ba ote zuten emakume haiek jaiegunik? Bizitza sozialik? (gizonezkoek, esaterako, elkarrekin joan ohi ziren; emakumeek, aldiz, ez zuten halako elkarretaratze-aukerarik). Ikasgelan denon artean hitz egin dezakegu horren inguruan eta hausnartu zer nolakoa izango ote zen emakume baserriarren bizitza. Ondorengo bideo hauek lagungarriak izan daitezke gure hausnarketan: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-080-016/>

Iraganean horrelakoa zen emakume baserriarren lana, baina nolakoa ote da gaur egungo emakume baserriarren bizitza? Asko aldatu ote da?

Egun, urtero ospatzen da Emakumearen Landa Eremuko Nazioarteko Eguna, urriaren 15ean. Gai baten inguruan nazioarteko egun bat izendatzen denean, haren inguruan oraindik gauzak lortzeke daudela esan nahi du; egun horiek izaten dira, hain zuzen ere, aldarrikapenak egiteko unea. Emakume baserriarren inguruan, beraz, badaude oraindik hainbat aldarrikapen. Ustiategiaren jabetza da adibideetako bat; izan ere, oraindik ustiategi gehienetan gizonezkoak azaltzen dira jabegoaren titular gisa. Gizarte Segurantzaren kotizatzearen aldeko kanpainak ere gaurkotatuta daude. Jarraian, duela gutxira arte gure artean bizitako emakume baserriar ezagun baten bizitzaren berri emango dugu, ingurukoak ikusarazi asmoz.

AGUSTINA GENUA SARALEGI

Balantza eskuetan duela, bere tomate ederrak pisatzen ari da Agustiña. Blusa, ilea bezain zuria, eta mahnezko gona urdina soinean. Bere baratzeetik ekarritako barazkiak, loreak eta arrautzak salgai ditu aldameneko koloretako kaxetan. Eguraldia ona dago, auzoko jendea gerturatzen zaio zerbait erosi edo blagan aritzeko. Horixe da jende askok gogoan duen Agustiñaren irudia.

Agustina Genua Saralegi 1925eko apirilean jaio eta 2019ko abenduan zendu zen hondarribiarra genuen. Arkoll auzoko **Salamanka Enea** baserrikoa zen, eta baserriarra izan zen bere bizitza osoan zehar. Oso maitatua zen herrian. Hamabi urte zituela hasi zen amonarekin baserriatik kalera jaisten barazkiak saltzera, eta ia bere bizitzako azken egunera arte jarraitu zuen eginkizun horrekin Denda kaleko bere txokoan. Amonarekin jaisten hasi zenean, merkatu bat omen zegoen

Denda kalean eta hango postu batean egon ohi ziren. Aurrerago, ordea, eraikina bota egin zuten eta, hasiera batean zortzi edo bederatzi emakumek jarraitu bazuten ere lehen merkatua zegoen tokira saltzera joaten, poliki-poliki, Agustiña bakarrik geratu zen eta hala jarraitu zuen, bere postuan, beste 30 urtez, egunero-egunero, baita igandetan ere. Hotza edo euria egiten bazuen, bertako atari baten giltza zeukan babesean egon ahal izateko. Bereziki loreak eta oiloak omen zituen gustuko.

Ezagutzen zutenek pertsona langilea zela diote, baina Denda kaleko bere txokoko lagunartea biziki maite zuen Agustiñak. Bizilagunen bat postura hurbildu eta Agustiña bertan ez bazegoen, ederki aski zekien jendeak Daniel zapatariarekin solasean egongo zela, edo bizilagunen baten etxean zerbait hartzen, edo tabernaren batean pintxo bat jaten... Gehienetan aski zen oihu egitea Agustiña derrepentean agertzeko; bestela, bezeroak zerbait hartu eta beranduago ordaindu ziezaiokeen. Bazegoen baserriko animalientzat ogi gogorra ekartzen zionik ere, edo arrautzak gordetzeko kartoizko zorroak...

Auzoko hurrek bihurrikeriaren bat edo beste ere egiten zioten, azenario bat hartu eta korrika atera esate baterako, Agustiñak errieta egiten zien bitartean. 2005an Emeki Elkarrekin omenaldia egin zion, eta 2016an Alde Zaharreko bizilagunek bazkari herrikoia antolatu zioten Klink elkartearen omenaldi gisa. Jarraian, *Agustiñaren Txokoa* adierazten duen plaka jarri zuten. 2021eko maiatzaren 6an, Udalak Denda kalearen aurrean dagoen plazari Agustina Genua Saralegi plaza izena jarri zion.

BASERRITARREN AZOKA

Hondarribian, Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, baserriak desagertzen ari dira, tantaka-tantaka; egun oso gutxi

dira nekazaritzan edo abeltzaintzan dihardutenak. Baina sektoreak bizirik eta lanean dirau. Inguratu gaitezen Hondarribiko baserritarrengana eta ikus dezagun egiten duten lana.

Asteazkenero eta larunbatero, hortxe ditugu Damarri plazan edo San Pedro kalean goizeko 8:00etan, uda ala negu, eguzki edo euripean, Jaizkibelgo mendimagaletako baserritarrak prest azoka suspertzeko eta haiek hazi eta landutako produktuak guri eskaintzeko. Bitartekaririk, bidaiarik edo prozesurik gabe, zuzenean ekartzen dituzte sasoiari sasoi barazki, fruitu eta bestelakoak.

Proiektu ekologikoetan aritzen dira batzuk, bertako bioaniztasuna eta zikloak errespetatuz, ingurunea gutxi kutsatuz, kalitate goreneko elikagaiak lortzeko asmoz.

Baina modu tradizionalan lan egiten dutenak ere badira, haien arbasoen tradizioari jarraipena emanez, betiere produktu kaltegarrikerik erabili gabe.

Zenbait postutako ekoizleak hasiberriak dira. Lurra lantzen laugarren belaunaldia dute beste batzuek. Badira beti baratzetik bizi izan diren familiak ere, **Gornutz** baserrikoak esaterako.

Garaian garaiko barazki eta fruituak erosteaz gain, arrautzak, lekaleak, loreak, landareak, eztiak, polena, propolia, kremak edo artisau-eran egindako ogi eta opiltxoak ere aurkituko ditugu. Bestalde, asteroko saskia edo otarrea nahi duenak, astean behin, azokako produktuez hornituriko saskia eska dezake. Saskia osatzen duten produktuak astero aldatzen dira eta bezperan baserritarrek bildutako produktuek osatzen dute.

Ondoren jarri dugun estekan klikatuz gero, azokako ekoizle bakoitzari buruz gehiago jakin dezakegu, baina interesgarria izan daiteke egun batez azokara gerturatu eta



zuzenean gure baserritar eta ekoizleak ezagutzea.

Material osagarria

Azokan aurkitu ditzakegun ekoizleen inguruan gehiago jakiteko:
<http://www.hondarribia.eus/eu/azoka/zer-da>

Beharbada etxeakoak ere anima ditzakegu azokara joan daitezen.

AZOKA EGUNA

Helburua gure baserritar eta ekoizleen gainean gehiago jakitea da; azken batean, lehen oso ogibide arrunta bazen ere, egun laborari gutxi ditugu gure inguruan. Ondo legoke munduko ogibide zaharretakoa den hau hobeto ezagutzea. Horrez gain, gure ekoizleen lanari balioa emango diogu eta bertaratzeko ohitura sustatu, zenbaitentzat lehenengo aldia izan baitaiteke. Beharbada, zenbait produktu erosteko aukera izan dezakegu, ondoren dastaketa-jolas bat egiteko.

- 5. jarduera.** Taldetan banatu gaitzke.
- Talde bakoitzak hausnarketa bat egingo du eta pentsatu zer jakin nahi duen azokan egoten diren ekoizle horien inguruan. Horretarako, galdetegi bat prestatuko du talde bakoitzak (zergatik lantzen duten lurra, ea gustuko ote duten, aspaldi egiten duten ala duela gutxi hasi diren, zer den haientzat astean bitan azokara etortzea, ea zerbait hobetuko luketen, ea zer duten amets...).
 - Ekoizle bakoitzarengana joko dugu eta jakin nahi duguna galdetuko diegu.
 - Ikasgelara itzulita, talde bakoitzak bildutako informazioa antolatuko du.
 - Talde bakoitzak besteei kontatuko die bildutako informazioa.
 - Talde guztiena entzun ondoren, atera ditzagun denon artean gure ondorioak.

6. jarduera. Hainbat fruitu edo barazki erosteko aukera izan badugu, dastaketa-jolasa antola dezakegu. Erositakoa mahai baten gainean jarri, eta begiak estalita banan-banan produktu bakoitza dastatu, gauza bakoitza zer den asmatzeko!

Etxekoekin joaten bagara, aukera paregabea izan daiteke erositako produktuekin errezeta bikainak gertatzeko. Hona adibide bat:

LURRA ETA ITSASOA GURE SUKALDEAN

Hondarribiko entsalada
 (20 min - 4 pertsona):

2 tomate handi
 200 g hegaluze-mendrezka fresko
 4 pipermin
 Baratxuri-ernamuinak

Hasteko, sartu tomatea ur irakinetan, zuritu, kendu haziak, eta ebaki zati txikitan. Ondoren, sartu mendrezka ontzian olio ketuarekin eta gatzarekin, eta kozinatu hamahiru minutuz lurrinetan. Jarraian, egin txiki-txiki pipermina. Segi tomatea prestatzen, gatza, piperbeltza eta oliba olio botaz. Platerean txukun aurkezteko, atondu molde biribilean. Jarri mendrezka su bizian lauzetan eta gainean tomatea gertatu. Amaitzeko, apaindu platera piperminarekin, baratxuri ernamuinekin eta olioarekin.
 (Errezeta: **Sardara**)

BARATZE KOMUNITARIOAK

Gure herrian badaude lurra lantzeko beste modua batzuk. Proiektu berritzaileak dira, baserrietan kokatuta ez daudenak; baratze komunitarioez ari gara.

Hondarribian, bi dira gisa horretako proiektuak: *ixare* eta *Sorburu*. Proiektu hauek baratze-elkarte edo kooperatiba gisa funtzionatzen dute. Zer esan nahi du horrek? Baratzea gustuko duen edo bertako barazkiak izan nahi dituen jendea elkartu eta bakoitzak lur zati bat landu beharrean, denon artean lursail handi bat kudeatzen dute. Helburua ez da etekin ekonomikoa ateratzea, baizik eta taldean, denontzat onuragarri, baratzea haien usteen arabera kudeatzea, agroekologiaren oinarriak aplikatuaz esaterako. Hori kontatu digute *Sorburu* taldekoek. Haien leloa "*barazki osasuntsuak modu komunitarioan eginda*" izango litzateke.

Lantzen duten lursaila udalarena da eta Botika aldean dago. Oro har, bazkideek hilean kuota bat jarri ohi dute eta trukean, astean behin, barazki-saski bat jasotzen dute. Baratze lana aurrera ateratzeko langile bat dago, eta asteburuetan bazkideak txandakatu ohi dira baratze-lanetan laguntzeko.

Zenbat eta baratze-txanda gehiagotan parte hartu, orduan eta kuota txikiagoa ordaintzen da hilean. Bazkideen artean denetarik dagoela ere kontatu digute, hau da, baratzean eskarmentua dutenak eta ez dutenak. Baina denon artean ikasten dute eta ondo pasatzeko denbora ere izaten omen dute baratzean partekatzen dituzten hamaiketakoetan!

Nahiko bagenu, Sorburu baratzeakoak prest daude guri baratzea erakusteko edo ikasgelara etorri eta egiten dutenaren berri emateko ere. Horretarako, aski dugu Arma Plaza Fundazioarekin harremanetan jartzea +34 943 64 46 23 telefonora

deituaz edo armaplaza@armaplaza.eus helbidera idatzita.

BARATZEAK HIRI HARRESITUAN?

Baratzea baserriarekin lotzen dugun jarduera bat da. Baina baratzeak ez daude baserrietan bakarrik. Historian zehar, hiri harresituak ere izan zituen bere baratze edo lorategiak. Hori adierazten dute bai iturri idatziek bai kartografikoek ere. Frutak nahiz barazkiak ekoizten ziren bertan eta, oro har, norberaren kontsumora bideratuta zeuden.

Kartografia historikoa helburu militarrekin egiten bazen ere, informazio ugari biltzen zuen. Bertatik jaso dugu Erdi Aroan hiribildua bitan banatzen zela: hegoaldean, egungo San Nikolas eta Etxenagusia Margolaria kaleen artean etxeak kokatzen ziren; iparraldean, ordea, baratzeak ziren nagusi. XVI. mendean, harresi berria eraiki zuten arren, barruko hiri-egitura ez zen asko aldatu.

GU ERE KARTOGRAFO

- Eta orain? Zein da garai bateko gure hiri harresituaren egoera baratzei dagokienez?
- Gelditzen al da baratzerik?
- Gustuko al dugu gaur egungo Alde Zaharraren egoera?
- Zerbait aldatuko al genuke?

Interesgarria izan daiteke ikasgelan hainbeste aldaketa jasan dituen eremu txiki baina garrantzizko honen inguruan aritzea. *Ezer ez da betiko* ideia azpimarratuz, etorkizunean, eremu hori nola imajinatzen dugun irudikatze bali dezakegu. Bakoitzak plano bat marraztu dezake. Horretarako, turismo bulegoan eskatu ditzakegu planoak edo Interneten bilatu eta oinarri gisa erabili, ondoren gure irudimena askatu



eta gurea egiteko. Eta zergatik ez? Gure ikasgelakoek egindako kartografia partikularra turismo-bulegoan erakusketa bat antolatzeko proposamena luza diezaiokegu Arma Plaza Fundazioari!

SENDABELARRAK

Gizakia gizaki denetik erabili izan ditu landareak bere gaitzak sendatu, arindu edo gaintzeko. Hori ez da, ordea, egun batetik bestera sortutako ezagutza, esperientzia eta naturaren behaketan oinarrituriko jakinduria baizik, belaunaldiz belaunaldi transmititutakoa ahoz.

Egun badago oraindik sendabelarren erabileraren ezagutzaren jabe denik, baina lehen baino jende gutxiago da. Beharbada gure bizitza-estiloa hiritartu ahala eta medikuntza garatu eta eskura izan ahala urrundu gara landareetatik eta antzinako jakintza horretatik.

Badugu bertako sendabelarren ezagutza biltzen duen liburu bat, *Sendabelarren erabilera Hondarribian* izenburua duena, Pio Perez eta Josema Iraola zenak bildu eta idatzia eta udalak argitaratua. Edozein herritarren eskura dago irakurri, kontsultatu, ikasi edo jakin-mina asetzeko. Bertan, Pedro Sagarzazuren sendabelarren inguruko ezagutzaren zati bat jasotzen da. Hona hemen bertatik hartutako pasarte batzuk:

Txilarra edo Erratz-Txilarra (*Erica scoparia*)

Zuhaixka hau erraz aurkitzen da Guadalupe ondoko bide ertzetan, Kostaldean eta Guadalupetik Pasai Donibanera Jaizkibel mendia zeharkatzen duen suebakia jarraituz. Ahalmen handiko gernu antiseptikoa da, eragin diuretikoarekin eta aldi berean idorgarria. Botika prestatzeko udaberrian bilduriko

loreak eta ernamuin bigunak erabiltzen dira. Lehorrean kontserbatu nahi badugu, nahikoa da sorta bat ondo aireztatutako leku lehor batean uztea. Infusio batean loreak edo hostoak erabiltzen baditugu, nahikoa da pixka bat gozatzen badugu. Aitzitik, ernamuin bigunak erabili nahi baditugu, 10 minutuz utziko ditugu ur irakinetan egosten, haien printzipio eraginkorrak hobe aterako baititugu.

Azken urteotan lan egin da Higerretik Arritxurira arte doan kostako eremuan txilarra berreskuratzeko. Honako esteka honetan Txilar purpura (*Erica cinerea*)-ren argazki bat ikus daiteke: <http://www.hondarribia.eus/eu/-/jaizkibel-higerretik-arritxuri-artedoan-kostako-eremua>

Azeri buztana (*Equisetum*)

Landare honen inguruan zerbait ikasi genuen 1. unitatean. Badakigu hortaz, milioika urte dituela, toki hezeak maite dituela eta gure herrian baratzetan, paduratan, Talaia bidean eta hainbat tokitan aurkitu daitekeela. Oraingoan ordea, sendabelar gisa daukan erabilera ikusiko dugu:

Nagusiki uda amaieran biltzen da, helduta dagoenean, orduan baititu printzipio eraginkor gehien. Botika gisa landare osoa erabiltzen da, sustrairik gabe, hobe fresko dagoela. Kontserbatu nahi badugu, hobe dugu bildu eta berehala itzalean idortu. Kanpoko erabilerari dagokionez, azeri-buztanaren infusioa edo zukua zauriak eta ultzerak orbaintzeko erabiltzen da. Infusioak odola garbitzen du eta zirkulazio izaerako arazoak, ospelak eta gisakoak, sendatzen ditu.

Espartzuaren formako hostoak metalei distira emateko erabiltzen ziren, zilarrari distira ateratzeko, silizio-gatzetan aberatsa izaki, esmeril antzeko bat bihurtzen baitira.

Azeri buztanaren irudia ikusteko eta informazio gehiago izateko sartu honako

esteka honetan: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2282/azeri-buztana>

Erramua edo Ereinotza (*Laurus nobilis*)

Hostoak kolorez berde ilunak dira, gogorak, usaintsuak eta erresistentzia handikoak baita negurik hotzenean ere. Fruituak, baia txiki beltzak, aberatsak dira printzipio eraginkorretan eta olioetan, baita lore txiki-txiki zuri eta ugariak ere. Hostoak udaberrian jaso behar dira eta fruituak udazkenean.

Hostoak karminatiboak dira, digestio astunak arintzen dituzte eta emakumeen hilekoa erregulatzen dute. Era berean, janari ongailu gisa da erabilia, gisatuei eta saldei zaporea emateko. Fruituak erreumari aurre egiteko erabiltzen dira, kanpoko aldetik. Alkohol etilikoan beratzen jarriko dugu eta gero kaltetutako aldean igurtziko dugu.

Erramu egunean bedeinkatutako erramuak ahalmen animista du uste zahar baten arabera: hosto bat diru zorroan gordetzen baldin badugu, ez gara diru faltan ibiliko.

Erramuaren irudi bat ikus dezakezu jarraian agertzen den esteka honetan: <https://sutondo.hostelerialeioa.net/eu/gastro/glossary/erramua>

Pareta belarra (*Parietaria officinalis*)

Ekainetik urrira arte loratzen da eta orduan botoi txiki berdexka ugari ateratzen zaizkio. Botika gisa erabiltzeko zurtoinak eta hostoak erabiltzen dira. Ahal dela fresko daudela kontsumituko ditugu, urte osoan izan baititzakegu eskura zurtoin eta hosto freskoak. Infusioan hartuta ondorio diuretiko arina du eta maskuriko gaitzak eta zistitisak sendatzeko ona da. Gainera gernuan harea aletxoak eta harri txikiak disolbatzeko gaitasuna du. Infusioan ere hartzen dute gibelean gabeziak dituztenek.

Oso gomendagarria da hepatitisak eta gibeledako beste gaitzak dituztenentzat.

Hona pareta belarraren irudi bat ikusteko esteka: <https://www.flickr.com/photos/erzibengoa/7576736154>

PARETA BELARRA

Bideo honetan Pedro Sagarzazuk pareta belarraren inguruan hitz egiten du besteak beste: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-028-018/>

7. jarduera. Entzun dezagun esaten duena eta ondoren honako galdera hauek erantzun:

- Zertan zen aberatsa Hondarribia alemaniar baten arabera?
- Oraindik ere horrela al da?
- Zergatik desagertu dira belar asko?
- Zenbat belar klase ditu etxean?
- Guztiak erabiltzen ba al daki?
- Nola ikasi zuen sendabelarren erabilera?
- Duela zenbat ekarri zuen pareta belarra eta zergatik?
- Zertarako erabili izan du askotan?

SENDABELARREKIN JOLASEAN

Honako esteka honetan sendabelarren erabileran trebatzen lagunduko digun jolas interaktibo bat dugu. Gainera bertsoan ibiliko garela irudituko zaigu, errima baita jolasaren ardatza. Saiatu! Ea zeinek gehien asmatu! <https://view.genial.ly/604a09cd98549c0d88b8f812/interactive-contentsendabelarrak>

Jolasa gustukoa izan badugu, zergatik ez saiatu etxekoekin?

Material osagarria

Hondarribian sendabelarren inguruko hainbat informazio jasotzen da Ahotsak.eus proiektuan ere. Hona horietako batzuk:

Zauriak sendatzeko onak diren belarrak eta karetxoak eta zorriak nola kendu:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-028-022/>

Odoluzkiak, buruko mina, hagineko mina eta katarroa sendatzeko:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-028-019/>

Pasmo belarra zaurientzat, kamamila, berbena eta kontsurta belarra, medikuak:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-065-012/>

Kamamila bila amonarekin:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-072-008/>

GURE ERROTAK

Baserri txarrak errota urruti dio esaera zaharrak. Baserria funtsezkoa izan bada Euskal Herriaren kultura, nortasun eta historian, errotak ere egiteko garrantzitsua izan du, sarritan baserriari lotua, bertan ehotzen baitziren baserrian hazitako arto eta gariak, irin bihurtzeko. Errotak, baserrien antzera, desagertzen ari dira. Negar egiten omen du errotak alea xehatzean eta negar egiten du poetak errotarekin batera desagertzen doan mundua ikusten duenean Lurdes Iriondo artistak Xabier Leterekin batera abestu ohi zuen bezala, Juan Mari Lekuonaren olerki honi doinua jarrita

*Errota zahar maitea
uraren ertzean.*

Uraren ertzean da

basati beltzean:

Negar egiten dezu

alea txehetzean.

Ni ere triste nabil

zutaz oroitzean.

Hona, nahi izanez gero, kantua ikasteko aukera:

Errota zahar maitea kantua: <https://www.youtube.com/watch?v=TXA8jZnAID4>

Letra: <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/kaie1303>

Maitasun kantua dirudien arren, desagertzen ari den kultura eta mundu zahar baten penaz ari zaigu poeta, denboraren joanak eta gizartearen aldaketak xehatzen doazen mundu ikuspegi baten desagerpena. Begi-bistakoa da azken hamarkadetan ematen ari diren aldaketa handiak hainbat gauza atzean uztera behartzen gaituela baina, horrek ez du esan nahi ahaztu behar ditugunik, inondik ere! Datorrenari jarraipena emateko gure bide propioa egin beharko dugu, baina horretarako heldu diezaiogun gure arbasoek utzi diguten ondareari, soilik horrela ulertuko baitugu zergatik garen garena, zergatik gauden gauden tokian eta ulermen horrek erakutsiko digu bidearen norabide berria. Zorionekoak gu! Hondarribiko ondarea oparoa baita eta errotak ugari.

Garai batean berebiziko garrantzia zuten errotek. Errotarik gabe gosea areagotzen zen herrian. Egun, errota gehienak desagertu badira ere, badago oraindik bat edo besteren arrastorik. Garaiaren lekuko izateko eraberritu zuten **Goikoerrota**. Baina ez da hori gure arbasoen erroten aztarna bakarra. 2020an altxor ederra topatu zuten.

Jaizkibelen, errotarria. Esteka honetan duzue topatutako errotarriaren berri: https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2020-06-27-07-00/hemeroteca_articles/errotarri-formako-aurkikuntza-eder-bat

Euskal Herri osoan, oraingoz, 306 errotarri azaldu dira eta Hondarribian hamar aurkitzeaz gain, harrobi garrantzitsu bat ere topatu da.

Dokumentuen arabera, ez dira gutxi Hondarribiak izan zituen errotak. Gehienak, Jaizkibelen zeuden, hiru ezik: **Errota zaharra**, Zumardian; Santa Engrazikoa eta Txiplaokoa. Hona zerrenda osoa, Luis Mari Elosegi eta Koldo Ortegak auzoen arabera zerrendatuta:

- Jaitzubia: **Ezteuzko** errota, **Ogallurretako** errota, **Loibiagako** errota, **Goikoerrota**, **Erdikoerrota** eta **Bekoerrota**.
- Zimizarga: **Txiplaoko** errota.
- Amute-Kosta: **Santa Engraziko** errota eta **Errotazahar**.
- Gornutz: **Errota Sein**, **Marti errota**, **Artzuko** errota, **Justizko** errotagoikoa, Justizko errotabehekoa.

Gure herriko errotak, mareak eta erreketako urek eragiten zituzten; uraren indarrak baliatzen ziren funtzionatzeko. Denen artean zaharrena, orain arte aurkitu diren dokumentuei erreparatuz gero, **Goikoerrota** da, 1515eko dokumentu batean aipatzen baita. **Ezteuzko** errota ere oso zaharra da, 1574. urteko dokumentu batean baitugu lehengo zaren berri. Beranduagoko dokumentu batean, 1592koan, erroten inguruan zegoen lege bat aipatzen du. Badirudi herrian bazegoela lrungo errotetara joateko joera zuenik eta lege honek espresuki galarazten du. Herriko biztanleek, bertako errotak erabili behar dituztela agintzen du.

Goikoerrotakoa azpimarratzekoa da ez soilik zaharrena delako, baizik eta egun oso egoera onean dagoelako udalak eraberritu ondoren. Garrantzi handikoa izan omen zen, arto eta gari asko ehotzeko gaitasuna zuelako. Udalak erosi zuen 1951. urtean 500.000 pezeten truke, bertako urari erabilera publikoa eman asmoz. Aurrerago, errota eraberritu zuen eta 1999. urtetik aurrera aterpetxea izatearekin batera, erabilera didaktikoa eman zaió. Hona beraz, gure arbasoen bizimoduaren lekuko paregabea, bizirik eta ikusgai, bide berriak jorratzeko prest. Denon artean zaindu beharrekoa.

Artzuko errota 1661ean eraiki zen eta 1950. Urtera arte izan erabili zen. Hona Artzu baserriko Gregorio Berrotaran bere familiarena zen errotari buruz hitz egiten:

ARTZUKO ERROTAKO PASADIZOA

Jarraian agertzen den estekan entzun daitekeenez, Gregorio Berrotaranek Hondarribiko zenbait errota aipatzen ditu eta bere familiarena zen Artzuko errotaren berri ematen digu: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-080-017/>

8. jarduera. Bideoan ikusitakoaren ulermena landu honako galdera hauei erantzunez. Bakarka, taldeka ala denon artean egin dezakegu:

- Hondarribiko zenbat errota aipatzen ditu?
- Zeintzuk dira errota horiek?
- Esaten duenaren arabera, errota horietakoren bat oraindik ba al dabil?
- Norena zen Artzuko errota?
- Familiak berak egiten al zuen l an errotan?
- Zein zen errotan maizter zegoen familiaren abizena?
- Zer “mesede” berezi izan zuen bere familiak gerra-garaian errotarekin?
- Zenbat irin egitea lortzen zuten “prezinto-garaian”?

Gregorio Berrotaranek bere familiaren errotan Sorzabal familia maizter zutela aipatzen du eta Xabier Aranburu kazetariak, *Hirian barrena liburuan*, bertan bizi izan zen Margarita Sorzabalen berri ematen digu, harekin biltzeko aukera izan baitzuen. Sorzabaldarrak zortzi seme-alaba izan omen zituzten eta horietako bi, Margarita eta Joakin, etxean geratu omen ziren. Margarita, Artzu baseritik gertu zegoen kuarteleko karabinero batekin ezkondu zen. Gregorio Berrotaranek kontaktzen digunaren arabera, gerra zibilaren ostean, errotak prezintatu egin zituzten, baina Margaritaren senarrak, karabineroa izanik, gauez prezintoa kentzen uzten zien, denbora tarte batez



gutxienez, eta haienez eta errotaren jabeentzako adina irin egitea lortzen zuten. Horrez gain, Margarita Sorzabalek berak Aranbururi kontatu zion bere aitak, Dionisio Sorzabalek, isilpean, tabakoa landatzen zuela ahal zuen tokian eta tabako hori karabineroei eskaintzen ziela itsasbazterreko erronda egiten zutenean.

Bi behi, txahal bat, zerria, ahuntz bat, bildotsa, oiloak, ahateak eta hiru asto omen zituzten. Margarita bera omen zen errotaria eta berak egiten zien harrera beren artoa asto baten gainean edo buru gainean zekarten baserritarrei. Ehotze lanaren truke, aleen ehun kilotatik sei eskuratzen omen zituen.

Laka esaten zaio horri.

Margarita astean bitan jaisten omen zen Portura barazkiak, fruta eta irina saldu eta errotarako behar zituztenak erostera. Anaiarentzako espartinak ordea, San Nikolas kalean erosten omen zituen.

Hiribilduak ere bazuen bere errota Santa Engrazia ermitaren ondoan. Udalak enkante publikoaren bitartez alokatu ohi zuen eta enkantean errotaren ustiakuntza lortzen zuenak, herriko jaietarako zezen bat ekartzeko ardura hartzen zuen. Noizean behin udalak ikuskaritza bisitak egiten zituen balantzan iruzurrik egin ez zezaten. Hala adierazten digu 1598ko agiri batek. Aldi hartan dena behar bezala zegoela ondorioztatu zuten baina urte batzuk beranduago, 1606an errotariak preso eraman zituzten eta 16 errealeko isuna ordaintzera zigortu zituzten iruzurra egiteagatik. Urte hartan bertan, errota eraberritua zuten. 1638ko setioan ordea, nahiko hondatua geratu zen eta udalak konpondu bazuen ere, 1838an sute batek suntsitu eta betirako eraitsi zuten.

ERROTARRIEN BILA

Ez dago ordea errotarik errotarririk gabe. Lehen unitatean ikusi genuen Jaizkibel

hareharriz osatutako mendia dela, hareharriari *mimariya* esaten zaio bertan.

Jaizkibelgo *mimariya* Hondarribiko zein inguruko herrietako etxeak, jauregiak, elizak, harresiak eta abar eraikitzeke erabili izan da historian barrena. 2020ko aurkikuntza batek agerian utzi zuen, errotarriak ere egiten zirela harri honekin eta horretarako harrobiak ere bazeudela Jaizkibelen.

Ikerketa honetan murgilduta ibili ziren adituek diotenez, askotan gertatu ohi den bezala, lehenengo aztarna dokumentu zahar batean topatu zuten, 1802ko *Diccionario de la Real Academia de la Historian*. Bertan Jaizkibel mendia hareharrian oparoa dela aipatzen du eta harri hau eraikinak, harlauzak eta errotarriak egiteko aproposa dela. Horra abiapuntua. Hurrengo aztarna Hondarribiko Joanes de Aldasoro harginaren 1583ko testamentuan topatu zuten, bertan errotarriak aipatzen baitziren. Bertan dio Jacobo de Azaldegui-ri Pontevedrara eramateko 62 errotarri utzi zizkiola eta Jaizkibelen jada egindako 100 errotarri zituela. Santa Engrazia ermitaren ondoan beste ehun utziak zituela ere aipatzen zuen. Halako errotarri ekoizpen handia ikusita, Jaizkibelen errotarren harrobia egon behar zuenaren susmoa areagotu zen.

Aranzadi Elkarteko kideek urteak daramatzate, Errotarri izeneko proiektuaren barruan, Euskal Herriko mendietan errotarri harrobien bila, Europa mailako proiektu zabalago baten babesean kokatzen da. Arakatutako dokumentazioan jasotako informazioaren argitan jo zuten Jaizkibelera, bertako harriak irakurtzera. Baita lortu ere! Santa Barbara ermitaren lehengo kokalekuan, egungo paradorearen arrastoak dauden tokitik hurbil azaldu ziren hamar errotarri, harlanduzko lanen arrastoak, harginek utzitako markak... Harrobiak kokatzeko gauza izan ziren ikerketaren ondorioz: **Arrobieta, Arginzuloeta, Arrobizarreta.**

SAGARDOA

Baserriaz hizketan jardun dugunean aipatu bezala, sagastiek garrantzi handia izan dute gure herrian. Duela zenbait hamarkada arte, baserri askok sagardiak zituzten eta familiarentzako zein ingurukoentzako adina ekoizten zuten.

Euskal sagardoari ondo datorkio bertan dugun klima atlantikoa baina zaila da jakitea noiztik ekoizten den sagarra eta sagardoa Euskal Herrian baina dagoeneko 1585ean Gipuzkoako Foruek 21. titulua osoki eskaini zion sagardoari.

Hondarribiko sagardoa estimatua omen zen. Artxibategiko dokumentuen arabera, 1745eko martxoaren 18an, herrian, 70 upel sagardo omen zeuden. Udalak izendaturiko batzorde batek kalkulatu zuen 1760an sei mila kargako sagardo-uzta izango zutela. Horrez gain, batzorde horren txostenean, laborari bakoitzak jasotako sagaruztaren seiren bat ur heren batekin nahasi ahalko zuela arautzen zen. Hori bai, beste sagardo guztia urrik gabe egin beharko zuten eta, saltzeko unean, sagardo puruari eman beharko zioten lehentasuna.

1904ko udal-bilkuran, igandea atsedean egun bezala arautzen zuen Lege eta Araudiaren interpretazioaz aritu ziren. Lege horren arabera, sagardotegiek edo sagardoa saltzen zuten guneez itxita egon behar zuten igandean; hori legearen okerreko interpretazioa iruditzen zitzairen eta hala adierazi zuten Madrilan, garai hartako Gizarte Berrikuntzen Institutuan. Horretarako, sagardoa eskualde osoko edari kuttuna zela argudiatu eta, horrez gain, arrisku gutxiko edaria zela defendatu zuten; gure lurretan zeuden baserrietan lortzen zela nagusiki eta langileek atsegin zutela ere aipatzen da eta, merkea izanik, familiek hartu ohi zutela bazkaltzeko orduan.

Florentino Portu artxibozainak bere *Hondarribia: Notas históricas y curiosidades* liburuan, garai bateko Hondarribiko sagardotegi batean aurkitu zitekeena deskribatzen du. XX. mendearen lehen erdialdeaz ari zaigu ziurrenik eta, kontatzen duenaren arabera, pregoilariak ematen omen zuen sagardotegien zabaltzearen berri. Sagardoa zegoen bitartean egon ohi zen irekia sagardotegia. Sagardogaraia hasten zenean, erraza zen sagardo-upelak ikustea Hondarribiko kaleetan barrena eta nonahi zeuden sagardotegiak, baita etxeetako sotoetan ere.

Txingarretan astiro erretako sardina, berdel edo txitxarroen usaina zen nagusi. Sagardoz beteriko sei edo zortzi upel handi, erabiliaren erabiliaz distiratsu bilakatutako zenbait zizeilu, neurri ertaineko hainbat jarleku, sagardo-saltzailearentzako zumitx eta zurezko aulki baxu bat, kristalezko edalontziak, zurezko eta metalezko neurriak, latorrizko inbutua... Hori guztiak aurkitu genitzakeen garai bateko Hondarribiko sagardotegietan; baita bi su txikiko sukaldea eta txingarren gainean arraina erretzeko parrilla ere. Eta txoko batean, jakina, auzoko katuren bat lo.

Sagardotegiak alde zaharraren barruan eta kanpoan aurkitu zitezkeen, baita baserrietan ere. Bertara mota guztietako jendea joan ohi zen, baina gehienbat arrantzale eta langileak.

Jarraian zerrendatzen dugu F. Porturen lanetan agertzen den zerrenda, 1934ko urtea baino lehen Hondarribian zeuden sagardotegien gainekoa, tamaina har diezaiozun.

Aipatu beharra dago zerrenda honetan azaltzen diren kale-izen edo etheen zenbakiak eta egungoak ez datozela kasu guztietan bat. Bestalde, ortografia eguneratu dugu eta zenbait kasutan



euskaratu egin ditugu bertan emandako zenbait hitz. Badago, halere, hitz bat ukitu nahi izan ez duguna, *etxian*, jatorrizko zerrenda gaztelaniaz emana bada ere, bertako hizkeran azaltzen baita eta hori bera errespetatu nahi izan dugu:

Alde Zaharrea

Kale Nagusia: Karnizeri-zaharran, 2. eta 3. etxian, eta Iriarte etxian, 6. zenbakia.

Pampinot kalea: Zamorianan, 4. etxia eta Migel Ugarten etxian, 20. zenbakia.

Etxenagusia Margolaria kalea: Pedro Tolaretan, 11. zenbakia.

Ubila kalea: Jose Maria Salaberriaren etxian, 10. zenbakia.

Apezpiku kalea: Eliz-atzean, Barran, 1. etxea eta Fraxkueneko murruan, 5. etxia, Markosen etxian eta 9. zenbakian, Jose Maria Salaberriaren etxian.

Arma Plaza: 13. zenbakia, Antonio Berrotaranen etxian.

Ipar kalea: 5. zenbakia, Zano guardapeskaren etxian.

Juan Laborda kalea: Lartxenean, 3. zenbakia.

San Nikolas kalea: 3. zenbakia eta Kondoneanen 15. zenbakia.

Javier Ugarte kalea: Karlos V.a gazteluaren teilapean.

Damarri kalea: La Glorian-en.

Portu Auzoa

San Pedro kalea: Rakataplaunean; Maulisilulunean; Romantxonean; Katilunean; Bernardonean; Amundarainean; Txerribeltzenean; Alijamuñean; Itxuanean; Tolar Zaharretan; Tolar Berrietan; Don Maximon Eskabetxian; Florentzion Eskabetxian; Estanizenean.

Santiago kalea: Nikolas Txikinián; Pio Kanpandegin etxian; Mañunean; Toribio Garzia tolaretan; Tomas Aginagalden tolaretan; Migel Panen etxian.

Zuloaga kalea: Hilario Labordaren Eskabetxian; Almirante Kabrera kalean, Florentzio Martinezian.

Kosta, Santa Engrazia, Amute, Mendelu

Gartxianeán; Sarasolaren etxian; Santa Engraziako Tolaretan; Urbiñenean; Amuten Migel Ugarteren etxian; Mendelun Albizuren etxian.

Baserriak

Mediamborda; Ogallurreta-azpi; Camiyo; Apatxara; Paskualenean; Ipiztiku (Jaizubia) Altxako-handi; Torrea; Ipiztikunea (Akartegi) Madalen-gain.

Material osagarria

Sagardoari buruz gehiago sakontzeko: <https://aunamendi.euskoikaskuntza.eus/eu/sagardoa/ar-109880/>

BA AL ZENEKIEN...?

Kanturako zaletasuna ederki lantzen zen gure sagardotegietan. Bertan abesten zen kantuetako bat Joxe Migelen batela kantu ezaguna omen zen, eta gure herriko arrantzale bati buruz ari omen da. Honako esteka honetan kontatzen digu Joxe Migel Elduainenek sagardotegietan abestu ohi zituzten kantuak-eta gosea saihesteko kantatzen zutela; baita Joxe Migelen batela kantuaren protagonista bere aitona zela ere. Entzun, entzun...: <https://kantak.ahotsak.eus/kantak/030503/hon-049-006>

Orain kantua nondik datorren dakigula, denok ikas dezakegu, izan ere Euskal Herri osoan abestu ohi da: *Joxe Migelen batela* kantua: <https://www.youtube.com/watch?v=JTB3mQAlhtQ>
Letra: <https://www.flashlyrics.com/lyrics/kepa-junkera/joxe-migelen-batela-13>

NATURAZ INGURATURIK BIZI GARA

9. jarduera. Azter dezagun zein diren gogokoen ditugun herriko txokoak. Horretarako, har ditzagun kontuan herriko eremu ezberdinak: mendia, basoak, errekek, padurak... baina baita hiria ere.

- Turismo-bulegoan, lortu herriko mapak, eta mural handi batean, marraztu mapa zuri handi bat, lekuri markatu gabe.
- Banakako hausnarketa txiki bat egingo dugu: zein dira nik atsegin ditudan txokoak? Bakoitzak paper batean idatz dezake pentsatu dituenak.
- Taldeka jarrita, bakoitzak bere gogokoenak aipatu eta zergatik dituen gustuko azalduko du.
- Taldeak, komunean jarritako lekuetatik lauzpabost aukeratuko ditu.
- Denon artean, talde bakoitzaren txokoak mapa handian kokatuko ditugu.
- Azter dezagun denon artean mapa nola geratu zaigun. Herriko eremuren batean (hondartza, hiria, padurak, mendia, basoak...) kontzentratzen al da puntu gehiago?

Naturarekin zerikusia duen punturik markatu al dugu edo hirikoak izan al dira puntu gehienak? Zenbateraino ezagutzen dugu gure herriko natura?

JAIZKIBEL GURE MENDIA

Lehenengo unitatean izan genuen Jaizkibeli buruz hitz egiteko parada. Hura berrius dezakezu gure babesa dela oroitzeko, *paramoudrak* izeneko egitura bitxiak agertzen direla gogora ekartzeko eta bertako *mimariya* hainbat gauzetarako erabilia izan dela azpimarratzeko.

Euskal kostaldeko mendilerroa dugu, alde batean itsasoa duena. Eremurik handiena Hondarribian kokatuta dago, baina beste bi esparru Pasaia eta Lezo udalerriei dagozkie.

2470 hektareako zabalera du eta honako mendi hauek ditu:

Hondarribian: Erramutz (386 metro), Artzain (473 metro) eta Allerru (545 metro).

Hondarribian kokatzen ez direnak: Artola (451 m), Tximistarri (425 m) eta Mitxintxola (332 m).

Bertan ditugu estazio megalitiko bat, Guadalupeko Santutegia, Guadalupeko gotorlekua, San Enrike gotorlekua, defentsa-dorreak, Remigio Mendibururen *Herrien elkartasuna* eskultura eta itsasargia.

Baliteke Jaizkibel mendia herrian daukagun altxorrik handiena izatea. Gu baino askoz lehenagotik dago hor. Milioika urte dituen zaindaria da, eta bere historia bere zimurretan irakur dezakegu, bere *flyschetan*.

BA AL ZENEKIEN...?

Pirinioak herrian bertan ditugu. Nolatan? Ezaguna da euskaldunon mendizaletasuna eta egun mendizale asko Pirinioetara joan ohi da abentura bila. Baina Hondarribian, Pirinioak herrian bertan ditugula esan dezakegu. Izan ere, Pirinioak itsasotik azaleratzearekin batera sortu zen Jaizkibel mendilerroa. Prozesua duela 120 milioi urte hasi zen, iberiar plaka europar plakarekiko biratzen hasi zenean. Horrela sortu zen Bizkaiko Golkoa eta baita gure mendilerroa ere. Prozesua duela 40 milioi urte amaitu zen. Egun, Pirinioak alde batetik bestera zeharkatzen dituen GR11 ibilbidea Higer lurmuturrean hasi edo amaitzen da, aukeratzen dugun noranzkoaren arabera.

Jaizkibelek bi isurialde ditu: iparraldekoa eta hegoaldekoa. Iparraldekoak erliebe konplexua du, paisaia ugari eta oparoak eta itsasorantz amiltzen da.

Hegoaldekoan, aldiz, mendi-hegal aldapatsuetan errotutako basoa.

Gure mendilerroan aurkitzen ditugun habitat-eta espezie-aniztasuna handia da. Horietako 12 habitat Europar Batasunak babesten dituenen artean daude. Hona hemen nagusiak:

- Bertako basoak: *ameztiak eta baso mistoa*.
- Ugari dira *kostako txilardiak* ere.
- *Hezeguneetan*, landare mehatxatu eta interesgarriak aurkituko ditugu, *mukibelar* argia edo *Pinguicula lusitanica* landare haragijalea, esaterako, ohikoa da gure hezeguneetan.
- Jaizkibelen bertan sortzen diren *errekastoek* habitat eta espezie bereziko ekosistema konplexua osatzen dute.
- *Sastrakadiak eta larreak* mendilerroaren azalera handia hartzen dute.
- Landareei dagokienean, bertan ditugu Iratze kalparduna (*Vandenboschia speciosa*) eta Euskal Herriko Armeria (*Armeria euscadiensis*). Bi espezie hauek kaltebera gisa sailkatuak daude, galtzeko arriskuan daudelako. Lehenak Jaizkibelgo bailaren sakontasuneko hezetan eta iluntasunak ditu gustuko, eta bigarrenak Jaizkibelen du populaziorik handiena eta Euskal kostaldeko landare endemikoa da.
- Interes bereziko espezie gisa sailkatua dago Eskulapioren sugea (*Zamenis longissimus*). Hark zuhaitzetan gora egin dezake harrapakinen bila.
- Belatz handia (*Falco peregrinus*) izeneko hegaztia bertan umatzen duen ehiztari azkarra eta trebea da, eta bakana bezala sailkatua dago.
- Uhingorri (*Euphydryas aurinia*) tximeletak hegan dabilzkigu Jaizkibelgo habitat aberatsean.

Horregatik, besteak beste, dago gure mendia **Natura 2000** sarearen barruan, Europar Batasunak babesten dituen naturaguneen sarean alegia, eta JAIZKIBEL Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE ES2120017) ingurumen-izendapena du.

GURE ERREKAK

Urak Jaizkibelen bere bidea egiten du modu eta norabide ezberdinak hartuz. Errekak, errekastoak, lur azpiko urak, ubideak, ur-jauziak... Forma guztiak hartzen ditu.

Jaizkibelgo isurialde bakoitzak bere errekasto eta errekak ditu. Iparraldeko isurialdean daudenen artean, nagusienak zuzenean itsasoratzen dira, eta hegoaldeko gehienak Jaizubia errekarara isurtzen dira lehenengo eta Bidasoa ibaira ondoren, itsasoratu baino lehen.

Guztira 60 errekasto eta erreka inguru ditugu herrian. Hona hemen nagusiak: **Iparraldeko** mendi-magalekoak: Lerueta, Aierdi, Mintegi, Martitxerreka, Txurtxipi, Iturraingo erreka, Erramudi, Martierreka, Mariputzu eta Mendizorrotz. **Hegoaldekoak:** Kanposantuko erreka, Ogallurreta, Putzuaundi, Antonzulo, Simonenea eta Bekoerota.

Sakondu nahi izanez gero, herriko mapa toponimikora jo dezakegu erreka eta errekastoen zerrenda topatu eta bakoitzaren kokapen zehatza jakiteko.

Material osagarria

Erreka eta errekastoen zerrenda eta kokapena:

<http://www.hondarribia.eus/documents/124308/5886591/Toponomia+y+Caserios/fc69c6dd-a0c3-3d99-9e17-de634e18c8f3>

ENTZUN DEZAGUN...

Herriko zein txokotan bainatzen gara gaur egun? Horren inguruan aritu gaitzke ikasgelan eta ikusi ea zenbat leku ezberdin aipatzen ditugun.

- Etxeetan dutxarrik ez zegoen garaietan, non garbitu eta bainatzen ote zen jendea?
- Ba al zuten bainujantzirik?
- Ba al zekiten igerian?
- Ohikoa al zen herritar batentzat hondartzara joatea?

Honako bi esteka hauetan kontatuko digute horren berri:

Jaizubiko errekan bainatzen:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-087-014/>

Errekan bainatzen: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-045-007/>

JAIZUBIAKO PADURA

Jaizubelen babesean dago Jaizubiako padura. Herritar asko joan ohi da bertara ibiltzera, korri egitera edo besterik gabe naturaz goatzera. Horretan ere aberatsa baita gure herria. Donejakue bidea ere bertatik pasatzen da Irundik datorrela, Guadaluperako bidean. Bertan dago Gipuzkoako lezkadi zabalena. Jaizubiako padura mendebaldeko Europatik Afrikarantz doazen hegaztien migraziobidean dago, eta hegazti-espezie askok bilatzen dute bertan babesa eta elikadura.

Padura, itsasoko urak sarri ureztatzen dituen lur sakonune hezea da. Gure paduretan Jaizubia erreko eta Bidasoa ibaiko uren gazi-gezak nahasten dira. Berezko klima hezea du eta hori onuragarria da bai hainbat animali eta landare espezieen garapenerako zein laborantzarako ere, lur emankorra izaten baita.

Baserria landu dugun atalean azaldu bezala, XVII. mendeko krisi ekonomikoak eraginda, askok nekazaritzan ikusi zuten irtenbidea eta ondorioz, lur berri askoren beharra sortu zen. Honela Hondarribian, padura gunea lehortu zuten nekazaritzarako lurrak lortu asmoz.

Zorionez, 2003tik aurrera laborantzarako lehorturiko 25 hektarea berreskuratzeko lana egin da. Horri esker padura leheneratzen doa neurrian, ehunka espeziek osatzen duten bioaniztasun handiko paisaia dugu bertan.

Jaizubiako padura Txingudi-Bidasoa izena duen Gipuzkoako padura-sistemaren baitan nagusia da, Europar Batasunak babesten duen Natura 2000 Sarearen baitan. Bi babes-izendapen ditu: TXINGUDI-BIDASOA Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE ES2120018) eta TXINGUDI Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE ES000243).

Lehentxoago aipatu bezala, bertako lezkadia aintzat hartzekoa da, Gipuzkoako zabalena baita. Lezkadia lezka arruntaz (*Phragmites australis*) osatutako habitat trinkoa da.

Ihiek osaturiko habitat babestua ere badugu bertan, baita ingurune gazian hazten diren landare zelaiak ere. Ur gezako aintzirak euri-urez elikatzen dira eta inguruan habiak egiten dituzte hegaztiak. Ibilbide ertzean, zuhaitz eta zuhaixkez osatutako hesi biziak, animalia askoren babesgune dira.

Espezie ezberdinen artean Apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) nabarmendu nahi dugu, mehatxaturiko espeziea baita. Euskal kostalde osoan soilik Hondarribian, Irunen eta Getxon aurkitzen da.

Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*) interes berezikotzat jotzen da. Erakargarria da oso, kolore biziko hegaztia baita eta erraza



da so egin ezker, errekaren goi aldean hegan ikustea.

Uroilanda handia (*Rallus aquaticus*) lezkadian ibili ohi da gustura, baina errazagoa da hura entzutea, ikustea baino. Euskal Autonomi Erkidego mailan, espezie bakan gisa sailkatua dago.

Andere-orratz dotorea (*Ischnura elegans*) ur geldoan aurkituko dugu; aintzira, putzu edota ubideetan.

Ihi zorrotza (*Juncus acutus*) aldiz, Amuteko errioaren ertzean beha daiteke, gazitasunean gustura dagoen landarea baita. Erkidego mailan bakan bezala sailkatua dago.

ENTZUN DEZAGUN...

Martin arrantzalea aipatu dugu hemen, baina herrian Martin mota ezberdinak ezagutzen ditu ondorengo Hondarribiar honek. Hondarribiko euskaran darabiltza hainbat txori klaseen izenak eta bere osaba arrantzaleak botatako txori klaseen inguruko bertsoa ere kantatzen du:

Bertako txori klaseak:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-001-020/>

Bertako txorien izenak eta ezaugarriak:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-001-032/>

Arrantzale batek botatako txoriei buruzko bertsoa:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-001-033/>

Hondarribi inguruan ikusten diren txoriak:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-001-034/>

10. jarduera. Bideo hauek ikusi ondoren, saia gaitezen ondorengo galderak erantzuten:

- Zenbat Martin klase aipatzen ditu?

Nola zuten izena? (Martin ontza, legekua, beltza, zuriya eta ttikiya).

- Ze beste txori mota azaltzen dira? (Papagayua, Potorrua, Brojua, Marikua, Ttirritarra, Marlaxka...).
- Zer egiten zuten lehen txori hauetako askorekin?
- Kantatzen duen bertsoa idazten saiatu

KAPEN EGIN HONDARRIBIKO BIOANIZTASUNEAN

Ez gara gure herria eta paisaia bizi garen izaki bakarrak. Bertako bioaniztasuna kontuan hartzen badugu, gure bizi-eremua beste hainbat espezierekin partekatzen oharuko gara. Bioaniztasun horrek ingurune eta paisaia aberatsa eskaintzen digu, itsasertzetik mendialderaino, hezegune eta paduretatik pasata, herrigunea bera ahaztu gabe. Hau guztia gure natur ondarea da eta guri dagokigu errespetuz hurbildu eta zaintzea. Horretarako ordea, ondare hori ezagutzea ezinbestekoa denez, hona hemen gure ekarpena.

Herri mailako Eskola Agenda 2030 egitasmoak gaia lantzeko aukera ematen du. Esaterako, *Basoak Ernatze* proiektuan ikastetxe bakoitzak eskola inguruko baso motak, zuhaitz motak, basoetako fauna, fruituak, landaketak, eragina,... landu ditzake. Gaiari buruzko informazio gehiago honako esteka honetan aurkituko dugu: <http://www.hondarribia.eus/eu/-/basoak-ernatzen>

Nolanahi ere, eskura dugu Hondarribiko bioaniztasunean murgiltzeko tresna eder, dibertigarri eta erabilgarria: *Kapen* karta joko!

Dagoeneko ikastetxean daude Kapen karta-jokoa eta dagokion posterra, baina behar izanez gero Arma Plaza Fundazioarekin harremanetan jar gaitezke

eskaera egiteko 943 64 46 23 telefonora deituaz edo armaplaza@armaplaza.eus e-postara idatziaz.

Kapen egitea itsasoan buruz murgiltzea da Hondarribiko hizkeran eta jolasaren helburua horixe da, Hondarribiko bioaniztasunean murgiltzea.

Itsasoa eta itsaslabarra; padura; ibaia eta erreka; baserri eremua; basoa; eta hiria eta parkeak dira biltzen dituen 6 habitatak. Habitat bakoitzeko seina espezie sartu ditugu: ugaztun, hegazti, arrain, anfibio edo narrasti, ornogabe eta landare bana. Guztira, beraz, 36 espezie dira agertzen direnak. Karta-jokoak, espezie hauek ezagutzeko aukera ematen du modu dibertigarrian, baina baita hizkuntza lantzekoa ere, bakoitzaren hiru izendapen jasotzen baitira: zientifikoa, euskara batukoa eta Hondarribiko hizkeran ematen zaiona.

Biltzen dituen espezieen artean batzuk arruntak dira, mehatxatuak daude besteak; badaude ikusteko zailak eta errazak, deigarriak, txikiak...denetarik aurkituko dugu bertan. Adibideren bat jartzearren, ur-arratoia edo apo lasterkaria aipa ditzakegu, mehatxaturik dauden espezieen artean. Nabarmentzekoak dira era berean, izokina, sagu zaharra, igaraba, burrunzia... Hauek mehatxatuak ez egon arren, babestutako espezieak dira.

Dibertigarria eta polita izateaz gain, arlo zientifikotik begiratura, lan zorrotza eta sakona da. Lau jolas mota desberdinetara jolasteko aukera ematen du gutxienik: familia, puzzlea, memoria eta azkartasuna. Eta agian guri beste erabileraren bat ere bururatuko zaigu...

Esteka honetan Maialen Lujanbioren bertsoa entzun dezakegu Kapen kartajokorako gonbita eginez: [Entzun bertsoa](#) Nahiago izanez gero, jokoaren kutxaren atzealdean mugikorra erabilia

bertsora eramango gaituen QR kodea aurkituko dugu.

IBILBIDEA PADURAN BARRENA

Unitate honetako ibilbidea paduran barrena egiteko proposamena dakargu. Nahi izanez gero, Arma Plaza Fundazioarekin harremanetan jar gaitezke bisitaldi hau antola diezagutela eskatuz. Paduran adituak direnekin joango gara bertara eta habitat eta espezieen inguruko argibideak emango dizkigute.

Fundazioarekin harremanetan jartzeko +34 943 64 46 23 telefonora deitu daiteke edo armaplaza@armaplaza.eus helbidera idatzi.

Beste aukera da guk geuk ibilbidea antolatzea.

11. jarduera. Ibilbidea antolatzeko informazioa bilduko dugu lehenik. Zer behar dugu?

Pentsa dezagun denon artean ze informazio bildu behar dugun txangoa antolatu ahal izateko. Informazioa, materiala, jan-edanak...

- Turismo bulegoan lor dezakegu paduraren mapa eta informazioa. Bertara nola iritsi ere galdetu dezakegu. Zenbat denbora beharko dugu ikastetxetik atera eta bertaratzeko? Hori aztertu ondoren, oinez ala autobusez joango al gara? Zenbat irauten du ibilbideak? Ba al dago iturririk bertan edo ura eramane beharko dugu? Janaria eramango al dugu?
- Bertaratzen garenean, zer ikustea gustatuko litzaiguke? Lezkadia, aintzirak, apo lasterkaria, lertxuna... Helburu batzuk markatuko ditugu.

- Zein izango da gure jarrera bertaratzen garenean?: lasaia, zaratatsua, oldarkorra, baketsua, ikerlariarena... apunteak hartzeko materiala eramatea komeni al da?
- Txangoaren bukaeran ikasgelara itzulita, txangoa nola joan den eta gure helburuak bete ditugun azter dezakegu: ikusi al ditugu nahi genituen espezieak? Ze beste espezie ikusi ditugu? Ikasi al dugu izen berririk? Zein izan da txangoaren alderik onena? Eta txarrena? Gure jarrera errespetuzkoa izan al da padurako bizidunekiko? Gure jarrera zaratatsua izan al da? ...

Material osagarria

Esteka hau ere lagungarria gerta daiteke txangoa prestatzeko, ibilbidea oso ongi deskribatuta baitago bertan. Ibilbidea, Jaizubiako padura: https://www.berria.eus/kanalak/mendia/ibilbideak_fitxa.php?klabea=4014&fetxa=2013-07-18&orria=038&kont=001

URA, NATURATIK ETXEKO ITURRIETARA

Egun, etxean ura behar dugunean, sukaldeko edo komuneko txorrota ireki besterik ez dugu. Bainugelara goazenean ere, urak eramaten ditu gure gorotzak. Arrunta da egungo gizartean. Baina ez da horrela munduko toki guztietan eta ez da beti horrela izan gure herrian ere.

Oraindik badago txikitik etxean iturriko ura ezagutu ez zuenik. Entzun bestela Ebarista Imaz Arruabarrenak dioena; ura etxera uztarrian nola ekartzen zuten kontatuko digu: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-013-031/>

URAREN ZIKLOA

Gure eskualdea Gipuzkoa osoko euritsuena da eta kontsumitzen dugun ura Endara errekaen arrotik dator. Nafarroan sortu eta 11,4 km-ko ibilbidea egiten du Endarak, Bidasoan isurtzen den arte. Erreka honen ura Endara edo San Anton eta Domiko izeneko urtegietan biltzen da. Urtegi hauetatik 6 km-ko hodi bati esker, Irunen dagoen Elordiko plantara joaten da tratatua izan dadin. Horrela lortzen da kontsumorako egokia den ura. Ondoren, banaketa deposituetara eramango eta bakoitzak dagokion eremua urez hornitzen du. Hondarribiko ura San Telmo, Lujunia, Eutp eta Errandonea izeneko deposituetatik dator. Horrela iristen da ura gure etxeetara, enpresetara, udal eraikinetara (kiroldegia, euskaltegia, liburutegia...)...eta hori da guk edateko eta garbitzeko erabiltzen duguna.

Erabilitako ura edo hondakin urak harraskan, konketan, dutxan, komunean... behera doazenean, hodi eta ponpa batzuen bidez bildu eta Atalerrekako araztegiara eramaten dira, Jaizkibelen, araztu eta itsasora isurtzen dira.

Prozesu hau guztia ordea nahiko berria da, bereziki urak araztearena, 2003tik aurrera egiten baita. Aurretik, ur hondakinak zuzenean isurtzen ziren naturara eta horrek errekek, ibaia eta itsasoa kutsatzen zituen.

Ura edangarri bihurtzeko tratatzearena 1996 urtetik aurrera egiten hasi zen, Elordiko planta eraikitzearekin batera. Ordura arte ura kloratu besterik ez zen egiten.

Endara (San Anton) da urtegi nagusia, 5 milioi m³ ur biltzeko gaitasuna du eta 1988. urtean eraiki zuten, ordurako, Domikoko urtegi zaharra ez zelako nahikoa. Izan ere, 60 eta 70 hamarkadetako biztanleria hazkundera zela

eta, ur murrizketak egon ohi ziren sarritan. 1989an sortu zen Irun eta Hondarribiko uren hornikuntza kudeatzen duen Txingudiko Uren Mankomunitatea Irun eta Hondarribiko udalen eskutik.

Jaizkibelen ere ura biltzeko beste hodi bat dago, beharrezkoa izango balitz erabiltzeko. Kasu horretan, Artzu, Molino, Justiz eta Goikoerrotako iturburuetatik jasoko litzateke.

Elordiko instalazioan tratatzen den urak prozesu bat bete behar du ura edangarri bihurtu dadin: aurre oxidazioa, birmineralizatzea, gatzatzea, malutatzea, dekantatzea, iragaztea, pHa doitzea eta azkenik kloroarekin desinfektatzea.

Banaketa deposituetatik etxeetara hodi batzuen laguntzaz iristen da ura eta hodi horiek bata bestearen jarraian jarriko bagenitu, Hondarribiatik Zaragozarainoko distantzia beteko genuke!

ZERTARAKO ERABILTZEN DUGU ETXEKO URA?

Herriko biztanle bakoitzak batez beste 124 litro ur baliatzen ditugu egunean honako zeregin hauetan:

- Garbigailua** 100-200 l
- Ontzi garbigailua** 101-30 l
- Baxera eskuz garbitu, iturria irekita** 100 l
- Bainua** 250 l
- 5 minutuko dutxa** 50 l
- Eskuak garbitu** 2 l
- Komuneko zisterna** 15-20 l
- Hortzak garbitu, iturria irekita** 7 l
- Jatekoak prestatu-edan (pertsona batek)** 5 l

Eztabaida dezagun denon artean:

- eskualde euritsu batean bizi baldin bagara, garrantzitsua ote da ura aurrezteak?
- Eta hala balitz, datuok kontuan hartuta, zer egin dezakegu etxean ura aurrezteko?
- Eta ikastetxean?

- Egun gero eta maizago hitz egiten da klima aldaketari buruz. Horrek gurean tenperatura igoera eta euri prezipitazioen murrizketa ekar lezake. Nola eragin diezaioke horrek gure ur hornikuntzari?

Ondorengo bideo hauek lagungarriak gerta daitezke eztabaidarako:

Ura masak gara:

https://www.youtube.com/watch?v=_IJGayFkvbk

Klima aldaketa:

<https://www.youtube.com/watch?v=8Rgg2M-ywBO>

Lurralde uretan kalte berririk ez:

<https://www.youtube.com/watch?v=kq535YuPr-Y>

Berde-berde askoz hobe:

<https://www.youtube.com/watch?v=jsBq0ErzCkl>

Zaindu komuna, zaindu mundua:

<https://www.youtube.com/watch?v=uo-mZJScxwl>

ZABORRA, BIRZIKLAPENA

Zer gertatzen da egunero sortzen ditugun hondakin solidoekin, zaborrarekin alegia?

Bigarren unitatean ikusi genuen Erdi Aroan jendeak zaborra leihotik behera botatzen zuela kalera. Denboraren poderioz, herria handitu ahala, zaborra gero eta gehiago zen eta arazo bilakatu zen eta zaborra kudeatzen hasi beha izan zen.

1997tik aurrera Irun eta Hondarribiko Udalek Txingudiko Mankomunitatearen esku utzi zuten herriko zaborren kudeaketa baita kale garbiketa ere. 1999 urtetik aurrera, koloretako edukiontzi berriak jarri ziren gaikako bilketa egin ahal izateko. Ordura arte beira eta papera jasotzen ziren eta aurrerantzean plastikoa biltzeko edukiontzi horia jarri zen eta ehunak biltzeko edukiontzi zuria. 2013an gai organikoentzako edukiontzi marroia iritsi zen. Horrez gain, herrian Akartegi garbigunea daukagu.



Hondakinen sorrera gure gizarteak daukan ingurumen arazo nagusienetakoa da.

Eustat Euskal Estatistika Erakundearen arabera, 2020an 16.984 biztanle zituen Hondarribiak. Gutako bakoitzak egunean 1,76 kg. hondakin sortzen dituela kontuan izanik, herri osoan egunero ia 30.000 kg zabor sortzen dugu eta urte osoan ia 11.000.000 kg hondakin! Jasangarria ote da?

Baina guk zerbait egin al dezakegu zabor kopuru ikaragarri hori gutxitzeko?

Botatzen dugun guztia ezin delako erabili botatzen al dugu? Horretatik guztitik erabilgarria dena birziklatzen ote dugu?

Murriztu, berrerabili, birziklatu dira giltzarriak.

Hondakinak murrizteko, beharrezkoak zaizkigun gauzak soilik erosi behar ditugu.

Objektuak berrerabili ditzakegu behar ez ditugunak beste norbaiti emanaz edo trukatuaz, edo erabilpen berri bat asmatuaz.

Sailkatu eta birziklatuko ditugu ezin ditugunak berrerabili.

Txingudiko Zerbitzuen datuen arabera 2000. urtean eskualdearen birziklatze tasa % 17,96 zen eta 2014an % 40. 2020 urterako, legeak birziklatze tasa % 50 izan behar duela ezarri zuen.

Ikasgelan, gai honen inguruan aritu gaitzake. Hasteko, ongi legoke egiten dugunaren inguruko hausnarketa egitea:

- Guk ba al dugu birziklatzeko ohiturarik?
- Eta objektuak berrerabiltzekorik?
- Garrantzitsua iruditzen al zaigu birziklatzea edo moda bat dela iruditzen zaigu?
- Klasean bereizten al ditugu hondakinak?
- Zer egiten dugu bereizitako hondakin horiekin? Guk hartzen dugu kudeatzeko ardura edo garbitzaileen esku uzten dugu?
- Birziklatzea garrantzitsua iruditzen bazaigu, egiten duguna baino gehiago egiterik ba dugu?

Klasean egiten dugunaren inguruko hausnarketaren ondoren, ikasleei proposa diezaiekegu ariketa bera egitea etxekoekin eta lagunekin.

GARRAIOA

Lurretik, airetik ala itsasotik irits daiteke Hondarribiara; gure herriak aukera horiek guztiak eskaintzen ditu gaur egun. Garai batean idiak edo gabarrak genituen. Orditik hona asko aldatu da eta garapen handia bizi izan dugu.

Baserriei buruz aritutakoan aipatu dugu garai batean animaliez baliatzen ginela zama garraiatzeko, idi-parea izan zein mando edo astoa.

Gabarra ere erabili izan dute gure arbasoek mendeetan barrena, zama eta pertsonak garraiatzeko. Itsasoaz gainera, gure ibai eta errekek ere garraiobide izan ditugu. Izango dugu aukera beste unitate batean hondo zapaleko ontzi hauei buruz gehiago jakiteko.

ODOL-TRAKZIOKO TRANBIA

Halaxe esaten omen zitzaion mandoek bultzatutako antzinako tranbiei: odol trakzioko tranbiak.

1896ko ekainaren 20an lotu zituen estreinukoz Irun eta Hondarribia tranbiak. Zumardiraino iristen zen hasiera eta Portu Auzoraino luzatu zen hilabete pasatakoan. Orotara, 4,86 km-ko tartea egiten zuen. Motor gisa bi mando erabiltzen zituen, eta burdinazko bideari jarraitzen zion. Diotenez, igande eta jaiegunetan tranbia jendez gainezka joaten zen Irunera eta bertako Hondarribia kalera iristerako beste zaldi bat lotu behar izaten omen zioten kale horretako malda igo ahal izateko. Horrela ere askotan nahikoa ez zenez, hainbat bidaiari jaisten omen ziren tranbia bultzatzera.

Bidaia-txartela kobratzen zuen pertsona bat zegoen, eta hark korneta baten laguntzaz adierazten zion gidariari noiz egin geldialdia edo noiz ekin berriro bideari.

Mota horretako tranbiak, urte batzuk beranduago, argindarraren bitartez funtzionatzen hasi ziren.

Material osagarria

Tranbiaren argazkiak ikusi ahal izateko, antzinako postalen bildumara jo dezakegu, eta bertako bilatzailean “tranbia” hitza jartzearekin hainbat argazki azalduko zaizkigu: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Gauza bera egin dezakegu idi-gurdiak ikusteko, bilatzailean “idi” hitza jarrita: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

ARGINDAR BIDEZKO TRANBIA

Irun eta Hondarribia lotzen zituen tranbia 1919an hasi zen argindar bidez funtzionatzen, nahiz eta hori egiteko baimena 1914tik izan. Itxuraz, elektrizitatearen bitartez funtzionatzeko egitasmoa oso garestia zen, eta luze jarraitu zuten animalien indarrak baliatzen, merkeagoa baitzen. Argindarrak bidaia-txartelaren prezioa igotzea ekarri zuen, eta badirudi Irungo eta Hondarribiko udalek gaitzetsi egin zutela prezioa igotzea eta protesta gisa ez zirela joan inaugurazio-ekitaldira.

Hona hemen bitxikeria gisa garai hartako bidaia-txartelen salneurria:

Irun-Amute: 0,25 pezeta
Irun-Zumardia: 0,40 pezeta
Irun-Portu Auzoa: 0,50 pezeta
Irun-Hondartza: 0,60 pezeta

1953ko ekainaren 18an egin zuen bere azken bidaia Irun-Hondarribia tranbiak, autobusak ordezkatu baitzuen.

IRUN-HONDARRIBIA AUTOBUSA

1935ean jaso zuen Irun-Hondarribia tranbiaren konpainiak berak autobus-linea ezartzeko baimena. Argindar bidezko tranbiak 1953ra arte jarraitu zuen, baina ordurako ez zen errentagarri eta konpainiak berak eskatu zuen zerbitzua bertan behera uzteko baimena. Baita Udalak pozik eman ere, argudiatuz autobusarekin jada zerbitzua bermatua zegoela, 1951. urtetik dagoeneko martxan zebilelako.

Donostiaraino zihoan linea ere martxan jarri zen, Pasaia, Errenteria eta Irundik pasatzen zena.

1985ean, Irun-Hondarribia lineako bidaia-txartelak 35 pezeta balio zituen.

ZALGURDI MODERNOAK

Motor bidez dabiltzan zalgurdiak dira taxiak. Gure Udalak 1959an onartu zuen taxi-zerbitzuaren araudia, 17 lizentzia finkatuz.

AIREPORTUA

Aireportua 1955. urtean inauguratu zen San Isidoro izeneko eremuan. Hasiera batean zuen 1.200 m-ko pista txikiegia zela konturatu ziren segituan, baina urte batzuk itxaron behar izan zituzten egun dituen 1.754 m-ko luzera izateko.

Hasieran, inguruko kontserba-fabrika erabili zen bidaiarien geltoki gisa. Beste aukera batzuk badira ere, nagusiki Madrilekin eta Bartzelonarekin lotzen du aireportuak gure hiria.

Bidaiarien kopuruari erreparatzen badiogu, 2019an 315.000 bidaiarik erabili zuten. Hondarribian kokatuta badago ere, izen ofiziala *Donostiako Aireportua* da.

Eztabaida ugari egon dira herrian lehen eta orain aireportuaren inguruan. Udalak



1943an izan zuen proiektuaren berri eta kontrako jarrera adierazi zuen; izan ere, garai hartan alkate zen Sagarzazu jauna erabat asaldatu zuen aireportua ia-ia hiriko sarreraraino iritsiko zela jakiteak. Frantziak ere protesta egin zuen, hegazkinak bere aireko spazioan sartzen zirela eta.

Azken hamarkadetan ere hainbat proposamen egin dira aireportua handitzeko Mendelurantz, itsasorantz. Harrabotsa eta eztabaida sortzen dituen gaia da zalantzarik gabe. Izan ere, aireportu bat herrian izateak baditu bere onurak eta bere kalteak ere. Eta guk zer pentsatzen dugu horren inguruan?

12. jarduera. Oraingo honetan, debate bat sortu dezakegu gai honi buruz. Ikasgela bi taldetan banatu, bata aireportuaren aldekoa eta besteak kontrakoa.

Lehenengo, talde bakoitza bere aldetik bilduko da argumentuak lantzeko eta egokitu zaien jarrera nola defendatu pentsatzeko. Argumentu bakoitza nork defendatuko duen ere adostu dezakete. Bi talde horiez gain, hiru edo lau pertsonak kazetari lanak egin ditzakete. Hortaz, bi taldeak argumentuak sortzen ari diren bitartean behatzaile-lana beteko dute.

- Erakargarria gerta daiteke TB-saioa balitz bezala antolatzea, saio-aurkezle eta guzti. Talde bakoitzak bere argumentuak azaltzeaz gain, beste taldekoak esandakoari erantzuten saiatuko dira, aurkezle edo moderatzaileak txanda ematen dietenean.

UR-HEGAZKIN BATEN LEHEN HEGALDIA

Aireportua eraiki baino askoz lehenago hasiak ziren Hondarribian aire-esperientziak eskaintzen dituzten tramankuluen erakustaldiak egiten. 1912an, Louis Paulhan-ek Txingudi badia aukeratu zuen bere ur-hegazkina probatzeko, garaian *hidroplano* izenez ezaguna. Arma Plaza, harresiak eta herriko hainbat toki jendez mukuruz zegoen gertaera hori ikusteko irrikaz; izan ere, lehen aldia izan zen hegazkin bat itsasotik aireratzen zena estatu osoan. Garaiko prentsak kanpotik ere jende andana etorri zela aipatzen du eta *hidroaeroplanoak* olatuen kontra izandako “borrokaren” berri ematen du.

Estatu Batuetan eraikitako *hidroplanoa* zen, 8 m-ko luzera zuen, 9,80 m-ko zabalera eta 700 litroko gaitasuna zuen. Flotagailu baten laguntzaz mantentzen zen ur gainean. Alboetan ere beste bi flotagailu zituen eta, 75 zaldiko motorraz hornituta, orduko 120 km-ko abiadura hartu zezakeen. Hainbat proba egin omen zituen 1912ko apirilaren 13 eta 17 artean.

BA AL ZENEKIEN...?

Roland Garrosek Jaizkibel aireportu bihurtu zuela ordu batzuetan?

Garros pilotu frantziarra ezaguna da mundu mailako tenis-txapelketa famatu batek eta Frantziako tenis estadio garrantzitsuenak bere izena daramatelako. Gurera, ordea, ez zuen tenisa ekarri, hegazkinak baizik 1911an, eta hura izan zen hegazkin batek Hondarribian lur hartu zuen lehenengo aldia.

Urte hartako maiatzean, mundu mailako hegazkin-lehiaketa bat antolatu zen estreinakoz. Parisetik Madrilera doan ibilbidea osatu behar zuten pilotuek hiru

etapatan banatuta, eta horietako bat Donostian bukatzen zen. Garros jauna Jaizkibel inguruan zihoala gasolinarik gabe geratu eta bertan lur hartu behar izan zuen halabeharrez.

Nola? Non?

Guadalupeko gotorleku-inguruan dagoen zelai batean, trebetasun handiz eta inguruko baserriarrak zein gotorlekuko soldaduak zur eta l ur utzita. Lanak izan zituen haiekin komunikatzeko, baina azkenean bi artillari jaitsi omen ziren herrira berarentzat gasolina bila. Guztira bi ordu eta erdi eman omen zituen Guadalupen eta han aireratu omen zen berriro. Ez zuen lehia irabazterik izan, Jaizkibelen galdutako denborak eta hurrengo eguneko etapan izandako arazok txapelketatik kanpo utzi baitzuten. Urte batzuk beranduago, Lehen Mundu Gerran parte hartu zuen pilotu gisa eta borrokan hil omen zen.

MATERIAL OSAGARRIA

Ondorengo esteka honetan Hondarribiko baserrien argazkiak ikus ditzakegu. 1965ean eta 1990ean eginikoak dira. Luis Mari Elosegui bilduma (6tik 20ra bitarteko orrietan): <https://www.guregipuzkoa.eus/?paged=7&s=&sf-fot=Elosegi+Aldasor o%2C+Luis+Mari>

Baserri batean, gortinekin banandutako logela baten argazkia: <http://bertan.gipuzkoakultura.net/bertan4/argazkiak/g/80.jpg>

Baserriarekin lotutako lanbideetan sakondu nahi izanez gero: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/aintzinako-lanbideak/baserri-inguruko-lanbideak>

Azokan aurkitu ditzakegun ekoizleen inguruan gehiago jakiteko: <http://www.hondarribia.eus/eu/azoka/zer-da>

Zauriak sendatzeko onak diren belarrak, eta garatxoak eta zorriak nola kendu:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-028-022/>

Odoluzkiak, buruko mina, hagineko mina eta katarroa sendatzeko:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-028-019/>

Pasmo-belarra zaurientzat, kamamila, berbena-eta kontsurta-belarra, medikuak:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-065-012/>

Kamamila bila amonarekin:

<https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-072-008/>

Errota zahar maitea kantua: <https://www.youtube.com/watch?v=TXA8jZnAID4>

Letra: <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/kaie1303>

Sagardoari buruz gehiago sakontzeko: <https://aunamendi.euskoikaskuntza.eus/eu/sagardoa/ar-109880/>

Erreka eta erreka-stoen zerrenda eta kokapena: <http://www.hondarribia.eus/documents/124308/5886591/Toponomia+y+Caserios/fc69c6dd-a0c3-3d99-9e17-de634e18c8f3>

Ibilbidea, Jaizubiako padura:

https://www.berria.eus/kanalak/mendia/ibilbideak_fitxa.php?klabea=4014&fetxa=2013-07-18&orria=038&kont=001

Ur-masak gara: https://www.youtube.com/watch?v=_IJGayFkvbk

Klima aldaketa: <https://www.youtube.com/watch?v=8Rgg2M-ywB0>

Lurralde uretan kalte berririk ez:

<https://www.youtube.com/watch?v=kq535YuPr-Y>

Berde-berde askoz hobe: <https://www.youtube.com/watch?v=jsBq0ErzCkl>

Zaindu komuna, zaindu mundua: <https://www.youtube.com/watch?v=uo-mZJScxwl>

Tranbiaren argazkiak ikusi ahal izateko, antzinako postalen bildumara jo dezakegu, eta bertako bilatzailean “tranbia” hitza jartzean hainbat argazki azalduko zaizkigu: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

Gauza bera egin dezakegu idi-gurdiak ikusteko ere, bilatzailean “idi” hitza jarrita: <http://www.hondarribia.eus/eu/antzinako-postalak>

BIBLIOGRAFIA

- ALTZUETA, Martin, ASIRON, Joseba (2018). "Aldaketa garrantzitsuen aroa". *Euskal Herriko historia ilustratua 3. Marinelak, matxinoak, sorginak eta ilustratuak*. Tafalla: Txalaparta: 78-103.
- ARANBURU, Xabier, SAGARZAZU, Xabier (2006). *Hirian barrena*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- AROZAMENA AYALA, Ainhoa, CENDOYA ECHANIZ, Ignacio, RILOVA JERICÓ, Carlos (2003, 2021). "Hondarribia." *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Eusko Ikaskuntza.
- ARRETXEA SANZ, Larraitz, RILOVA JERICO, Carlos, MORA AFAN, Juan Carlos (2005). *Gerra ilustratua Hondarribian. Hiriaren setioa 1719an / La guerra ilustrada en Hondarribia. El asedio de la Plaza en 1719*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- DE GOROSABEL, Pablo (1862). "Fuenterrabía", *Diccionario Histórico Geográfico Descriptivo de los Pueblos, Valles, Partidos, Alcaldías y Uniones de Guipuzcoa*. Tolosa.
- DE URANZU, Luis (2003). Lo que el río vió. *Biografía del río Bidasoa*. Irun: Boletín de estudios del Bidasoa.
- EMPARAN ORTIZ, José Ramón (1994). *El arrabal de la Magdalena: un barrio desconocido*. Hondarribia, Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2012). "Hidroplano en Txingudi", *Cosas de Alde Zaharra* 04.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2012). "El final de la hegemonía comercial del burgo", *Cosas de Alde Zaharra* 08.
- GOIRICELAYA, Ernesto (2012). "El primer aterrizaje de un avión en Hondarribia", *Cosas de Alde Zaharra* 15.
- LARRINAGA RODRIGUEZ, Carlos (2004). "Ocaso de Hondarribia como plaza militar". In *Historia de HondarriHboian d/ arribiko historia*. Hondarribia: Hondarribiko Udala: 275-279.
- NARBARTE HERNANDEZ, Josu, DEL AMO JIMENEZ, Eneko, DIEZ ORONOZ, Aritz (2020). "Baratze bat nahi deizüt egin..." Baratze eta lorategi urbanoak Euskal Herriko hiribildu eta bastidetan (XIV.-XIX. Mendeak): Tokiko produktu freskoak ekoiztea antzinako erregimenean. *Lurralde* 43: 345-372.
- OLAIZOLA ELORDI, Juanjo (2011). *La compañía del tranvía de San Sebastián, 1887-2012. 125 años de transporte público en la capital guipuzcoana*. Madrid: UNED.
- OLASKOAGA, Fermin, ELOSEGI, Luis Mari, GEBARA, Kote, ORTEGA, Koldo (2003). *Hondarribiko baserriak*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- ORTEGA, Koldo (2020). "Hondarribiko erroten bila", *Hondarribia Herri Aldizkaria* 318: 24-25.

- ORTEGA, Koldo (2020). "Hondarribiko errotharriak", *Hondarribia Herri Aldizkaria* 344: 24-25.
- PEREZ ALDASORO, Pio, IRAOLA, Josema (2008). *Sendabelarren erabilera Hondarribian*. Hondarribia: Hondarribiko Udala.
- PORTU IRIBARREN, Florentino (1989). *Hondarribia, Notas históricas y curiosidades*. Hondarribia: Gipuzkoako Foru Aldundia; Hondarribiko Udala.
- SANTANA, Alberto (1993). *Baserriak. Bertan 4*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- SANZ-AZKUE, Iñaki (2020). "Errotarri formako aurkikuntza eder bat", *Gaur*8: 22-25.
- ZENBAIT AUTORE (2003). *Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat: ikerketa, zaharberrikuntza, zabalkundea / Un caserío guipuzcoano: investigación, restauración, difusión*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- ZENBAIT AUTORE (2013). *Jaizkibel Amaharri*. Donostia: Hondarribiko Udala.
- Eustat, EAeko enpleguen % 0,3 lehen sektorea (2020ko ekaineko datuak): https://www.eustat.eus/elementos/tbl0012548_e.html
- Baserriarekin zerikusia duten atsotitzak (Gotzon Garate, Atsotitzak): <http://www.erabili.eus/lantresnak/esamoldeak/Atsotitzak>
- Mapa toponimikoa eta baserriak: <http://www.hondarribia.eus/documents/124308/5886591/Toponimia+y+Caserios/fc69c6dd-a0c3-3d99-9e17-de634e18c8f3>
- Bertan bilduman, *Baserriak*: <http://bertan.gipuzkoakultura.net/bertan4/eus/1.php>
- Errotaren inguruko esaera zaharren zerrenda: <https://postaria.com/pipermail/itzul/2018-March/027281.html>
- Ahotsak.eus. Hondarribiko errothak: <https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-080-017/https://ahotsak.eus/hondarribia/pasarteak/hon-023-019/>
- Babestutako naturaguneak: <https://www.geohondarribia.org/eu/hapo:96/hapo-behin-betiko-onespena:m365 Ibilbidea>
- Jaizubiako paduretan zehar: <http://www.hondarribia.eus/eu/natura/jaizubia>
- Zaborra lantzeko unitate didaktikoak: https://www.txinzer.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=707&Itemid=302&lang=eu

ESTEKA INTERESGARRIAK

- Domiko urtegia: <https://www.chcantabrico.es/lagos/domiko>
- Endara erreka: <https://www.chcantabrico.es/las-cuencas-cantabricas/marco-fisico/hidrologia/rios/endara>
- Bertako baserritarrak azokan: <http://www.hondarribia.eus/eu/azoka/botika-agroaldea>
- Hondarribiko errezeta batzuk: <http://www.hondarribia.eus/eu/azoka/ekimenak>





Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

